

TOKIKOM

2020ko azaroa | 208. zenbakia

aitzari!

txorierriko ald

Andoni Ayarza

Lezamako
zuzendaria



Konekta zaitez gurekin!



Facebook:
aikoraldizkaria



Twitter:
@Aikortxori



Instagram:
aikor.aldizkaria



Webgunea:
www.aikor.eus



Zure argazkiak eta albisteak bidali




WhatsApp:
688 86 41 35



E-posta:
aikortxori@aikor.com


Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.

-  **4** Eretxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Itxialdia
-  **12** Euskaraldia
-  **14** Gaztea eta... Hodei "Peri", rap-abeslaria
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Egurra S.A., Martinez de Lezearen eskutik
-  **20** Andoni Ayarza, Athleticen berriro
-  **24** Gure ostalariak
-  **28** Txorierriko errentak
-  **30** Gurena zahar-etxea
-  **31** Krisi-garaiak
-  **32** "Derioztarrak", kaleko pintura-proiektua
-  **34** Ispiluan... Biktimismozik ez
-  **35** Aikorrizketa... Gu nolako, Gabonak halako
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Euskaraldia



24 Gure ostalariak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Izarne Agirre, Gaizka Peñafiel, Itsasne Zubiri, Einer Larrabeiti, Arrate Gaztelu, Jose Luis Barrenetxea eta Ana Galar

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Estitxu Perez (688 782 642)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eretxien erantzukizunik

Albo-kalteak

Komunikabideek diote COVID-19ak honezkero 3.000 pertsona inguru hil dituela Euskal Herrian. Birusaren gaineko estatistika guztiak xehetasun osoz daramatzagu: proba-kopurua, positiboak herriz herri, ZIUen datuak... Sekulako informazio-zaparrada jasotzen dugu egunero. Gaitzak bete-betea kolpatu du osasun-sistema, eta bidean albo-kalte izugarriak sortu ere. Horien berri, ordea, inor gutxi ematen du. Hiru mila lagun hil dira koronabirusa erraia zutelarik, baina zenbat haren zeharkako eraginez?

Bistakoa bada ere, nago informazio-tsunamiak ez digula ikusten uzten jendea beste gaixotasun batzuen artean ere hiltzen ari dela. Osasun-sistemaren gainbehera geroz eta agerikoagoa da, eta eragin zuzena du bestelako gaixoen gain. Osakidetza paregabea zela esaten ziguten agintariek, eta errealtate gordina erakutsi dizkigu aspalditik pairatzen zituen gabezi guztiak. Orain, gainera, probak eta ebakuntzak atzeratu egin dira, ez dago aurrez-aurreko

konsultarik eta hitzordua nekez har daiteke telefonoz. Arreta eskasa jasotzen ari gara, eta gehien sufritzen dabilzanak bizitza osoa lanean eman dutenak dira; ez da justua. Osasun-langileak ez dira egoeraren errudun, noski. Jakin badakigulako nolako baldintzetan ari diren lanean: lehen lehen bizi jokoan jarri eta gainezka egiteko zorian.

Osakidetza baliabideak, kontratazio berriak eta azpiegiturak behar ditu. Horretarako, erakundeek gertatzen ari dena serio hartu beharko lukete behingoz, eta bostere ekonomikoaren atzaparretatik askatu, publikoaren defentsa zintzoa egiteko. Dirua makro-azpiegiturretan xahutzen ari diren bitartean, osasungintzaren taupadak ahulduz doazelako. Egoera kritiko honetan kezkagarria hauxe da: herritarrek erruztatzeko erraztasuna eta autokritika egiteko ezintasuna. Ez dugu perfekzioa eskatzen, arreta duina baizik. Osasuna lehenetsi, mesedez, hura gabe ez dagoelako ezer; soilik heriotza.



GAIZKA PEÑAFIEL
Musikaria eta irakaslea

Hitzak saminetik idatzi ditut, ez haseurretik. Koronabirusa gure etxean momentuz sartu ez den arren, eragin duena larritik ordaindu dugulako. Estatistiketan ez gara agertuko baina, albo-kalteen biktima garelako. Urak baretzean, alabaina, 2020 honetan gertatutako guztia aztertuko den itxaropena dut. Ikasteko eta berriz gerta ez dadin; sufritutakoak zerbaiterako balio dezan.

Maite genituenengatik eta maite ditugunengatik.

Kontakizunak eta betaurrekoak

20ko hamarkadaren hasiera beltza izan zen gizateriarentzat, mutaturik joan ziren aurpegi anitzeko krisiek kolpatu baitzuten gizartearen. Bereizki ezagunak izan ziren koronabirusa eta bere albo-kalteak: Txinatik etorri zen birusa, oso kutsakorra, hilkorra eta beldurgarria. Lehendik arrakalatuta zeuden osasuna, hezkuntza, zaintza eta ekonomia hondatu egin zituen. Gizarte mendebaldar "akomodatuak" azken mendeetan muntatutako sistema dardarka hasi zen; orduan, superpotentzia superheroiaren (eredu maskulinoan) norgehiagoka hasi zen. Herritarrek salbatzailearen zain, eta agertu zen... txertoa. Azkenean, amets



IZARNE AGIRRE
Irakaslea

gaiztoa bukatu zen horrelako kontakizunak gustatzen zaizkigunontzat.

Zoritarrez, 20ko hamarkadak jarraitu zuen askoren amesgaizto izaten; txalupa hauskorretan, arantzadun mugetan, noraezean, babes bila zebiltzan herritarrena; egun batetik bestera lantegia itxi, eta ehunka familia kalean eta lanik gabe gertatu ziren horien; etxegabetutako familierena... Bukaera politen kontakizunak, ordea, AEBko etxe zurirako bidea kontatzen zuten, Errusiako edo Alemaniako txertoen fidagarritasun-tasak ematen zituzten...

Eta horrela pasatu zen 2020 hura, gizartearen agertuz joan zen krisi-zulo bakoitzaren partxe txiki eta kontakizun politez estaltzen. Hamaika betaurreko ez baitira nahikoak ikusi nahi ez duenarentzat.



Loiuk gizarte-zerbitzuak indartu ditu 2021erako aurrekontuetan

Loiuko udalbatzak aho batez onartu ditu 2021erako aurrekontuak; 4,260 milioi euro orotara. EAJk zein EH Bilduk aurrekontuen aldeko botoa eman dute. Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean adierazi duenez, gizarte-zerbitzuetara zuzendutako diru-partida handitu da datorren urterako. "Loiuztarren oinarritzko beharrianak betetzea udalaren lehentasuna da, eta dirulaguntzen eta enplegu-planen bidez herritar zaurgarrienak babestuko ditugu. Era berean, auzo guztietan inbertsio publikoko proiektuak egingo ditugu, eta «Loiu Aurrera» diru-partida berezia, besteak beste, herriko ostalaritzari eta merkataritzari laguntzera zuzenduko da, etxebizitzetara, bonoloiuak ateratzera, gizarte-larrialdietarako laguntzetara eta familia-kontziliaziora".

Begoñaren esanetan, 2021erako aurrekontuak inoizkorik handienak dira. Gainera, azpimarratu du oso momentu gogor batean onartu direla, eta EH Bildu alderdiaren aldeko botoekin. Horri lotuta, aurrekontuetan EH Bilduren proposamenak ere jaso direla azaldu du. "Proposamen horiek bat datoz udal-gobernuaren lan-ildoekin: esate baterako, udal-tasak eta -zergak bere horretan uztea, gizarte-zerbitzuetarako diru-partida handitzea eta, oinarritzko gizarte-zerbitzuen bidez, etxegabetuak izan daitezkeenentzako laguntza-ildo berari eustea". Bestalde, dirulaguntza eman go zaie Derioko eskolan ikasten duten umeei, Sondikan ikasten dutenen eskubide berberak izan ditzaten, eta langabetuek ez dute ibilgailuen zerga ordaindu behar. "Azkenik, alderdi biok beharrezkotzat jo dugu herriko elkarretearako dirulaguntzak % 10 murriztea; Elikagaien Bankuaren Elkarterako dirulaguntza izan ezik".

Begoñaren ustez, "aurrekontuak errealistak dira eta egungo krisi sanitarioari,



sozialari eta ekonomikoari erantzuten diote". Halaber, gailendu du Udalkutxatik diru-partida txikiagoa jaso arren udalak ez duela zorpetu behar.

Beste aldetik, Loiuko EH Bilduk positibotzat jo du EAJrekin egindako akordioa. "Alde batera utzi ditugu politika-arloko ezberdintasunak eta udalerritari ekarpena egitea lehenetsi dugu". Koalizio aberztalearen iritziz, gobernu-taldeak ez du "arrabol politikoa" baliatu, "gure proposamenak beharrezkoak, logikoak eta gauzagarriak direlako". Nolanahi ere, jakinarazi dute azpiegiturari, kulturari eta herriko etorkizunari lotutako beste proposamen batzuk egin dituztela eta horiek ez direla aurrekontuetan jaso. "Baina udalak konpromisoa hartu du proposamenak aurrerago aztertzeke eta erakunde eskudunetan aurkezteke". Loiuko EH Bilduren esanetan, "Loiuko Udalaren akordioak COVID-19a garaitzeko behar dugun batasun abertzalearen adibidea izan behar du".

Berbalagunek elkartzen jarraitzen dute

Bizitzaren gainerako arloetan gertatzen den moduan, COVID-19ak sortutako pandemia gelditzeko neurriek berbalagunen taldeetan ere badute eragina. Horrela, taldeek egoera aldakorrera moldatu behar dute, eta ohiturak aldatu. "Taldekide batzuk, esaterako, tabernak batzen ziren, kafe bana hartzen zutela, euskaraz egiteko. Tabernak itxita, gehienez sei laguneko taldeak kalean eta parkeetan biltzen dira orain, pasieran ibiltzeko. Nolanahi ere, tabernak zabaltzen direnean, nahi badute, bertan batuko dira berriro. Egoerara moldatu baino ezin da egin", esan du Itsasne Zubiri egitasmoaren arduradunak.

Azaldu duenez, pandemiaren eraginez, egunotarako antolatuta zeuden ekintza batzuk bertan beharra utzi behar izan dituzte, hala nola garagardo- eta turroi-tailerrak. "Ahal bada, garagardo-tailerra etorkizunean egiteko asmoa dugu. Bestalde, aurreko hilabeteetan ekintza batzuk egin ditugu: mendi-irteera, talo-tailerra eta Getxophotora joatea".



AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Larunbata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 beheko
Zamudio
94 4520419

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Asteleheneetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO



Bonu-kanpaina, Derion

Derioko Udalak 27.410 euro bideratuko ditu herriko merkataritza-ostalaritza- eta enpresa-jarduera sustatzera. Horretarako, bonu-kanpaina bat ipini du martxan. Jakinarazitakoaren arabera, hamazortzi urtetik gorako derioztarrek bost euroko bonu bana jaso dute etxean, kanpainan parte hartzen duten dendetan, ostalaritza-establezimenduetan eta zerbitzuetan gasta dezaten.

Bonuak azaroaren 30etik urtarilaren 5era arte erabili ahalko dira. Erosleak gehienez bonu bi erabili ahalko ditu aldi berean: establezimenduan bonu bakarra aurkeztu badu, gutxienez bost euroko erosketa egin beharko du; eta bonu bi badira, gutxienez 10 euroko erosketa. Establezimenduek egun hauetan eraman beharko dituzte bonuak udaletxera: abenduaren 15ean eta 29an eta urtarilaren 15ean eta 29an.

Umorezko bakarriketa, Derion

Mirari Martiarenak eta Idoia Torre-garaik "Pakien daona pakian utzi!" bakarriketa emango dute abenduan. Ikuskizuna Tximintx komunitateak antolatuta du eta hilaren 8an, 19:00etan, izango da Gurea Aretoan.



Ekintzak eta elkarretaratzeak, indarkeria matxista gaitzesteko

Azaroaren 25a Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna izan zen. Aurten pandemiak aldarrikatze-ekitaldiak baldintzatu dituen arren, talde feministek eta erakundeek deituta, ekintzak eta elkarretaratzeak egin ziren hiriburuetan eta herritan, indarkeria matxista gaitzesteko eta emakume guztientzat bortizkeriarik gabeko bizitza aldarrikatzeko. Baita Txorierrin ere. Esate baterako, Zapata Gorriak Zamudioko talde feministak antolatuta, emakumeek osatutako giza kate bat herriko kaleetatik ibili zen, eta, ondoren, ekintza egin zuten Leizaola plazan.

Bestalde, Koxak Derioko talde feministak errebindikazio-esaldiak eta bandera

feministak zabaldu zituen hutsik zegoen herriko plazan eta irudia gizarte-sareetara igo zuen. Larrabetzun eta Lezaman elkarretaratzeak egin ziren, besteak beste, Zutunik (Larrabetzu) eta Moreak (Lezama) talde feministek deituta. Garrasia Sondikako talde feministak ere bideo bat grabatu zuen eta gizarte-sareetan zabaldu zuen. Horretan, indarkeria matxista jasaten duten emakumeak omentzeaz gainera, sororitate-gunea aldarrikatu zuten. "Ulertu behar dugu emakume guztiok baita egon behar dugula, eta, aldi berean, sistema matxistaren menpean egoteak dakarren oztopoa ikusgai egin", idatzi zuten gizarte-sareetan.



INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO GRAFITIAK, DERION .—Derioko Udalak, Politeknika Ikastegia Txorierrik eta Danerik Paraje Derioko Merkataritza Elkartek indarkeria matxistaren kontrako sentsibilizazio-kanpaina zabaldu dute: Politeknikako ikasleek hainbat grafiti egin dituzte Derion. Grafitiak herriko hainbat lekutan daude ikusgai: udaletxean, kiroldegian, Kultur Birikan eta 40 dendatako erakusleihoan. Batetik, kanpainaren logoa margotu dute; bestetik, "Nire bizitzako emakumea naiz" edo "Nire buruaren jabe, ni neu" moduko esaldiak.



a: Zapata Gorriak

Ekintzak Lezaman, Azaroaren 25aren inguruan



Irantzu Varela

Lezaman hainbat ekintza antolatu dira Azaroaren 25aren harira: zine-foruma, agerraldia, bertso-saioa eta antzerkia, batzuk aipatzearen. Ekintzak elkarte eta erakunde hauek antolatu zituzten: Moreak talde feministak eta Lezamako Udalak eta Berdintasun Arloak. Nolanahi ere, oraindik Irantzu Varelaen "Las violencias machistas en el marco del amor romántico" hitzaldia entzuteko aukera dago. Hitzaldia abenduaren 10ean, 19:00etan, izango da Kultur Aretoan.

Beste alde batetik, abenduan berdintasun-tailerrak egingo dira ludotekan. Sexu-aniztasunari buruzko tailerrak ere izango dira gaztegunean eta gaztelekuan. Ekintzek hurrengo helburu hauek dituzte: sexualitatea eraikitzean eragina duten alderdiak ezagutzea eta haien gaineko hausnarketa egitea, rol- eta genero-estereotipoak sakontzea, berdintasunari lotutako inguru digital eta fisiko osasuntsuak sortzea, maitasun erromantikoaren mitoak lantzea eta tratatuak sustatzea.

L. LEIZADLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857

OK

OAKLAND

ENGLISH

LIBURUDENDA PAPERDENDA

ZAMUDIO

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Tlf. / Faxa:
94 452 29 10

RUBÉN

ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizaola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 34 49

ZAMUDIO
Loteria Nazionale

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

PATXI
KOOP

PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Baserriak, 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 522 387 - info@paxi.com - www.paxi.com

Guztira 235 euskal kirol-elkartek kirol federatua eta eskola-kirola berriro martxan jartzeko adierazpen bat sinatu dute. Kirol-elkarrekin Bultzatza Kirola Euskadi plataforma eratu dute. Elkarrekin Euskal Autonomi Erkidegokoak dira, eta haietako batzuk, Txorierrikoak: Beste Bira atletismo-taldea, Uritarrak futbol-taldea eta -eskola, Olarreta Pilota Elkartea, Zamudio KE eta Lizeo Frantzesaren gurasoen elkartea. "Ez dugu ulertzen Eusko Jaurlaritzak hartu duen erabakia. Kutsatze-maila % 0,30 ingurukoa da kirol-jardueretan; beste arlo batzuetan, aldiz, altuagoa izan arren, ez dira eten", esan dute.

Elkarrekin aipatu dute pandemiak lan ikaragarria ekarri diela: dokumentazioa, ikastaroak... Gainera, protokolo zehatz bati aurre egin behar diote: ibilbideak,

Eskola-kirola berriro martxan jartzea eskatu dute



seinalizazioa, aforoak, desinfekzioa, tenperatura hartu... Hau da, "erantzukizuna" erakutsi dute. "Hala ere, Eusko Jaurlaritzak ez du hori guztia kontuan izan eta ez digute entrenatzen uzten".

Oharrean aipatu dutenez, kirola bertan behera uzteak arazoak ekarriko ditu. "Klubak hustu egingo dira, jendea kirolek aldenduko da eta beste jarduerak indibidual eta asozialago batzuetara joko du... Eta kirolek egiten ez badute, ez dute aisia pasatzeko alternatiba handirik izango: kalean egongo dira elkarrekin, ziur asko distantzia barik, maskara barik, desinfektatzen ez diren parkeetan". Era berean, taldeko entrenatzaileak eta monitorea langabezia geldituko dira eta, ondorioz, "kirolaren inguruko sarea desagertuko da".

Loiuk skate-pista berri du

Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean jakinarazi duenez, udalak skate-pista konpondu berri du. Besteak beste, lan hauek egin dituzte: txarto zeuden taulak kentzea eta konpontzea, urki- eta HPL-aula berriak ipintzea eta erreimateak eta oxido-puntuak berrikustea. Udalak 5.500 euro ipini ditu lanetan. Webgunean adierazitakoaren arabera, skate-pistak indarreko araudiak betetzen ditu eta bertan kirol hauek egin daitezke: skatea, rolling-a, scooter-a eta BMXa.

Bestalde, Begoñaren hitzetan, udala hiru kirol-egitasmo lantzen dabil. Horrela, laster CUBOFIT bat (aire zabaleko gimnasio funtzionala) ipiniko dute martxan, eta Calisteniari lotutako proiektu bat garatzeko aukera aztertzen dabil. Eskaladaturru bat ipintzeko asmoa ere badute. Proiektuak Zabaloetxe, Larrondo eta Lauroeta auzoetan garatuko dira.



Emausek egoitza zabaldu du Derion

Bitartean arreta osoko programaren bidez, Emaus gizarte-fundazioak egoitza ipini du Derion. Zerbitzua gizartetik kanpo dauden edo egon daitezkeen Txorierriko eta Mungialdeko herritarrentzat da, eta helburuak hauek dira: pertsona horien garapena eta gizarteratzea bultzatzea eta, laguntza teknikoari eta indibidualizatuari esker, euren bizi-kalitatea hobetzea.

Derioko egoitzan, besteak beste, jan-tokia, egongela, tailerrak eta jarduerak

egiteko gelak, profesionalen bulegoak, garbitokia eta dutxa atondu dira. Egoitza asteleheneetik barikura, 09:00etatik 17:00etara, egongo da zabalik eta bertan 15 laguni emango zaie zerbitzua; hala ere, anbulatorioan, etxean eta komunitate-lokaletan pertsona gehiago artatzeko aukera egongo da. Bestalde, gizarte-langileak eta -hezitzaileak, psikologoa, zerbitzuaren arduraduna eta garbiketako langileak ere izango dira egoitzan.

Sendatu
Fisioterapia
Diana Diaz Cherry
elkargokide-zk. : 992

Aretxalde, 68 behea
48196 LEZAMA

688 763 457

TABERNA
GAZTE
Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

LEJARRENE JATETXEA
Garaioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

Garaioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

Neurri-multzoa Zamudion, COVID-19aren ondorioak arintzeko



Pandemiak sortu dituen ondorio ekonomikoen aurrean, Zamudioko Udalak 205.000 euro zuzenduko ditu herriko ostalaritzari, merkataritzari eta herritarrei laguntzera. Azaroaren 6an, ostalaritza arloan indarrean sartu ziren murrizketek ekarri zuten negozio batzuk ixtea edo zerbitzua oso baldintza murriztuetan eman behar izatea; Zamudioko neurriek batez ere ostalariei laguntzea dute helburu. Horrela, bada, herriko taberna eta jatetxe bakoitzak 1.000 euroko laguntza jasoko du.

Bestalde, martxoan edota apirillean zabalik egon arren, eta aurreko urtearekin alderatuta, saltoki eta autonomo batzuen diru-sarrerak % 75 baino gehiago murriztu ziren 2020ko bigarren hiru hilabeteetan; udalak 25.000 euro bideratuko ditu saltoki horietara, eta 50.000 euro, autonomoen taldera. Autonomoen kasuan, Zamudion

errolatuta egon behar dute, eta egoitza fiskala ere bertan izan.

Udalak bonu-kanpaina ere ipiniko du martxan. Zehatz-mehatz, 3.000 bonu aterako ditu ostalaritzan gastatzeko, eta beste 3.000 bonu, dendetan eta zerbitzuetan gastatzeko. Bonu bakoitzak 35 euro balioko du: erosleak 20 euro ordainduko ditu; eta gainerakoa udalak ipiniko du. Erosleek mota bakoitzeko bonu bi har ditzakete. Bonuak abenduan erosi ahalko dira ADI Zamudio aplikazioaren bidez, eta herritar-txartela erabilita abenduaren 26tik martxoaren 31ra bitartean gastatu. Zamudion errolatuta ez daudenek ere eskuratu ahalko dituzte bonuak. Udaletxera jo beharko dute horretarako.

Azkenik, udalak arduratsuak izateko deia egin die herritarrei, "egoera lehenbailehen amaitu dadin".

Txartela solidarioak Lezaman

Lezama Saretzen elkarteak eta udalak bultzatuta, abenduaren 17ra arte txartel solidarioak eskuratu ahalko dira herriko zenbait establezimendutan. Txartel bakoitzak bost euro balioko du, eta batzen den dirua gizarte-larrialdietarako laguntzera bideratuko da, herriko familia behartsuei Gabonak hobeto pasatzeko. Bestalde, txartelen jabeek produktuz betetako saski baten zozketan hartuko dute parte. Zozketa abenduaren 18an egingo da udal-liburutegian.

Komun publikoa ipini dute Larrabetzun

Larrabetzuko Udalak jakinarazi duenez, egungo ezohiko egoera kontuan hartuta, komun publikoa ipini da Anguleri kultura etxearen ondoan. Udalak azaldutakoaren arabera, kale-garbitzaileak komuna ere garbitzen du, baina, bestalde, enpresa bat kontratatu dute astean hirutan komuna garbitu eta desinfektatu dezan.

Irakurtzea sustatzeko programa Lezaman

Programa 3 urtetik 9 urtera bitarteko umeentzat eta euren familientzat da. Horri lotuta, saio bi egingo dira irakurzaletasuna bultzatzeko eta liburutegiaren mailegu-sistema zabaltzeko. Lehenengo saioa "Irakurketa kluba" ipuin-kontaketa izango da eta abenduaren 17an egingo da Kultur Aretoan. Bigarren saioa "Ipuinak dantzan" ipuin-kontaketa izango da eta hilaren 22an eskainiko da Kultur Aretoan ere bai.

TURREGOITI
JATETXEA
Laurola etorbidea, 27
48160 Lolu-Bizkaia
T-Faxo: 94 453 24 40
restauranteturregoit.com

**sarraila-denda**
Txorierri
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN

948 038 663
625 100 800
info@cemajentxorierri.com
www.cemajentxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Unkiola, 4. lorja
48160 Deno

elekma
URRATZETAN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK,
TELURISAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXAKAK

lehenengo markak • Prezioak onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txorierri etorbidea, 25-3.N. 48160 Lolu
T: 944 539 232
www.elekma.es



Nekazamudiok online erosteko zerbitzua eskaintzen du

Nekazamudio elkarteko ekoizleek www.nekazamudio.eus webgunea ipini dute abian, eta horretan euren produktuak erosteko aukera ematen dute. Gainera, erosketak etxera edo lantokira eramaten dute. Besteak beste, produktu hauek eskuratu daitezke: basatxerri-produktuak, txakolina, marmeladak, barazki ekologikoak, eztiak eta karakolak.

“Urte batzuk daramatzagu hilaren lehen zapatuan Nekazamudio azoka egiten, eta badakigu jende askok nahi duela baserriko produktuak hilean behin baino gehiagotan erosteko aukera izan. Gainera, produktuak etxera edo lantokira eroango ditugu eta hori balio erantsia da, batez be egungo egoera eta mugikortasun-murrizketak kontuan hartuta”, azaldu digute. “Era berean, enpresa eta lantegi asko ditugu inguruan, eta hareetako langileengana ailegatzea be gustatuko


litzaiguke, baserriko produktuak gustuko dituzte eta”.

Webgune ulerterraza eta intuitiboa da, eta ekoizle bakoitzak bere atala du bertan, produktuekin eta prezioekin. “Banaketa barikuetan egiten da, 10:00etatik 15:00etara, eta eskaerak eguazten gauera arte egin daitezke; egunean egiten direnak hurrengo asteko barikuan banatuko dira. Gura beste produktu-kantitatea erosi daiteke eta banaketak hiru euro balio du”. Ordainketa be online egin behar da. “Webgune segurua da”.

Nekazamudio elkarteko kideek espero dute webguneari esker salmentak areagotzea. “Jenteak gero eta gehiago erosten du online, izan be, oso eroso da eskaera etxean egin eta etxean jasotzea. Bestalde, eskerrak eman gura dizkiegu Nekazamudio azokara datozen guztiei eta ekoizleei zuzenean erosten dietenei”.



Orrialde honetan, Itsasne Zubiri sondikoztarrak konfinamenduak inspiratutako margolan-saila aurkeztuko digu.



Sare sozialen indarrak ere gaixotzen gaitu: etengabeko eta berehalako informazioa, irudiaren menpekotasuna, berehalako gizartea, pantaila bati lotutako elkarriketak, emozio hutsak, beharrian teknologikoa... Bitartean, bizitzak jarraitzen du eta denbora badoa. Ba al gara kontziente zenbat denbora ematen dugun "deskonektatuta"?

KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA
Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBARTARITZA
Elena Lombana (elk.553)
Tel.: 944 541 377 - Faxa: 944 541 215
10:00-14:00 / 16:00-19:00
(hitzordua eskatu behar da)

ASTIKENEMOTOR
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Kaxolak

Txorierrin be “euskera gehiago, gehiagogaz, gehiagotan”

Azaroaren 20an hasi, eta abenduaren 4an amaituko da Euskaraldiaren bigarren edizinoa. Egitasmoak helburu hau dauka: herritarrek hizkuntza-ohituren ganeko hausnarketara egitea eta inertziak apurtzea. Halanda be, COVID-19ak eragindako egoerak baldintzatuta, Euskaraldia testuinguru berezian etorri jaku aurren.



Aurreko edizioaren argazkia, Zamudion atarata

Eta hori nabaria izan da izen-emotean. Lerro honeek idaztean, 2018ko edizioaren datuak alderatuta, parte-hartzea % 60 ingurukoa zan Txorierrin. Edozelan be, esan beharra dago parte-hartzeak desberdinak dirala udalerri baten edo bestean. Itziar Aldekoa Euskaraldiaren Txorierriko arduradunak azaldu dauanez, herrietako batzordeetako kideek aitatu

“Kalean egon ez eta ekitaldirik antolatu ez arren, komunikatu behar dogu; idea da alkarrizketa horreek euskeraz egitea”

dabe orokorrean ez dagoala giro handirik. “Jenteak beste gauza batzuetan dauka burua eta zaila izan da. Dana dala, nahiz eta jente gitxiagok izena emon, Euskaraldiak aurrera jarraitzea eta funtzionatzea bada zeozer. Gainera, kontuan hartu behar da pandemia-garaian euskera ahaztuta egon dala eta komunikabideetan-eta oso gitxi agertu dala; beraz, bultzadea emon behar deusagu”.

Pandemiak berak, osasun- eta segurtasun-neurriek eta mugikortasun-eta batze-neurri zorrotzek zaildu egiten dabe herrietan Euskaraldiari ikusgarritasuna emotea. “Ekitaldirik gabe, gatzagoa da herritarrengana heltzea, baina, akabuan, Euskaraldiaren funtsa berba egitea da; eta, kalean egon ez eta ekitaldirik antolatu ez arren, komunikatu behar dogu, telefonoz edo birtualki. Hortaz, idea da alkarrizketa horreek euskeraz egitea”.

“Nahiz eta jente gitxiagok izena emon, Euskaraldiak aurrera jarraitzea eta funtzionatzea bada zeozer”

Txorierritarrek ahobizi edo belarriprest rola hartu eta egitasmoan parte hartzen animatzeko hain zuzen be, Euskaraldiaren Txorierriko arduradunek bideo bat zabaldu dabe gizarte-sareen bidez. Bideoaren protagonistak txorierritarrek dira eta “euskera gehiago, gehiagogaz eta gehiagotan” erabiltzeko gonbidapena egiten deuskue. Gainera, gogora ekarri behar da Txorierriko 130 entitatek bat egin dabela ekime-neagaz eta, ondorioz, gurean 300 arigune baino gehiago dagozala.

Beste alde batetik, Euskaraldiak irauten duan egunetan, antolatzaileek mezuak eta spotak zabalduko dabez. Era berean, onlineko berbaldiak antolatu dira; esaterako, abenduaren 1ean, 19:00etan, “Arlo sozioekonomikoaren hizkuntza(k)” berbaldia emongo da eitb.eus webgunean eta Euskaraldiaren atarian. Ariketako zailtasunak argitzeko saioa ere egongo da abenduaren 2an, 19:00etan, Euskaraldiaren youtube kanalean.

Amaitzeko, antolatzaileek leihotetan eta balkoietan banderatoak ipintzeko proposamena egin dabe, egitasmoa “ikusgarriago egiteko eta, bide batez, mugimendua baliabidez indartzeko”. Banderatxo bakotzak bost euro balio dau eta batzen dan dirua krisiaren eraginez arriskuan dagozan euskerearen aldeko egitasmoei laguntzera bideratuko da.

Hizkuntza-ohiturak aldatzea helburu dauela, Euskalardiaren funtsa *belarriprest* eta *ahobizi* rolak dira. Ne-rea Elexpuru loiuztarak, barbarako, *belarriprest* rola hartu dau ariketaren bigarren edizinoan. Bere familia Mungiakoa da eta, azaldu deuskunez, beti egin dabe bizkaieraz. Halanda be, berak eta ahiztek erdaraz ikasi eben. Franco hil ondoren euskera batua ikasten hasi zan, eta gaztetan be ibili zan ikasten, baina semeak jaio ziranean itxi eban, semeak zirala-ta eta lana zalata ez ebalako astirik. Horregaitik, eta etxean euskaraz egin arren, erosoago sentitzen da *belarriprest* rolean.

“Egia esan, pandemia dala-ta, oso gitxi urtetan dot etxetik eta, beraz, ez dot jente askogaz berba egiten; gehienbat telebistea eta irratia entzo-

ten dodaz euskeraz”. Elexpuru Aurregoiti Lauroetako jatetxea dauka eta, bere us-tez, oso inportantea da euskeraz egiten dauenari euskaraz erantzutea. “Nahiko ondo ulertzen dot. Ganera, jatetxera eskolako irakasleak etorten dira bazkaltzera eta euskeraz egiten dogu”. Espero daigun irakasleak eta ganerako bezeroak berandu baino lehen euskeraz barriro egitea, horrek adierazoko dauelako negozioa zabalik dauela.

Asier Elgea zamudioztarra, bestalde, ahobizi da. Euskalduna da eta aurreko edizinoan *belarriprest* rola aukeratu eban, “pentsau nebalako entzuteko prest nengoala adierazoten ebala (kar-kar); lagunek esan eusten *ahobizi* izan behar nebala eta

horregaitik naz aurten *ahobizi* (kar-kar)”. Ezohiko egoeran gagoz eta zamudioztarrak uste eban euskeraz aritzeko oso aukera gitxi izango ebala. “Baina uste baino gehiago izan dira. Aurreko egunean, adibidez, Bilboko Erriberako merkadura joan nintzan eta, *ahobizi* txapea ikusita, batzuk euskeraz egin eustien. Mendien gauza bera gertatu jatan: persona bati eskularra erori jakon eta deitu neutsanean ikusi neban berak be txapea ipinita ebala; euskeraz egin geutsan alkarri”.

Elgea irakaslea da eta eskolan zein etxean eta kalean euskeraz egiteko ohitura dauka. Euskaraldia amaitzen danean be euskeraz bizi izaten jarraituko dau.

Ahobizi eta belarriprest



Kutxabank
EUSKARALDIArekin

GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra



“Adierazitakoa benetakoa izatea nahi dut”

t: Itxaso Marina / a: Jon Loidi

Peri gaztetxoa zela, eskolan, hasi zen bere sentimenduei buruz idazten. “Barrukoa ordenatzeko”. Rapa Interneten bidez ezagutu zuen, eta lagun bati esker. “Bestalde, lehen, Hardcore.Exe taldekoek Jam jaialdia antolatzen zuten herrian, eta egitasmoaren bitartez apur bat gehiago jakin nuen raparen gainean. Jakin-mina piztu zitzaidan, herrian rapa egiten zuen jendea zegoelako, eta, idazteaz gainera, abesten hasi nintzen. Arazoak nituen garai hartan, eta rapa modua zen sentitzen nuen hori guztia bideratzeko; barrukoa kanporatzeko bidea. Halaber, errimak erraz egiten nituela konturatu nintzen”.

Derioztarrak hainbat abesti egin ditu eta bideo klipak ere grabatu ditu. “Bideo klipak lagun batek, Jon Loidik, zuzendu ditu eta Youtuben ipini ditut ikusgai; beste abesti batzuk, irudi batek lagunduta, eskegi ditut gizarte-sareetan. Kantuetan, bizi dudana mintzatzen naiz, barrukoaz, sentimenduez... Horrela lortzen dut horiek guztiak hobeto aztertzea eta, hortaz, ordenatzea”. Abendurako, bideo klip berria kaleratzeko asmoa du. “Loidirekin grabatzen nabil, bere ideia batean oinarrituta. Egia esan, oso lan landua da, gogoz egina. Ondoren, sei edo zazpi abesti aukeratu ditut eta maketa bat-edo grabatuko dut”.

Teknologiari eta aplikazioei esker, gaur egun erraza da musika egitea. “Nik etxean grabatzen dut, nahiko ondo dagoen mikrofono bat erabilita, eta soinu-txartel bat. Gainera, errazagoa da, baldin eta bideoak eta egiten dakien eta soinuan aditua den jendea ezagutzen bada. Era berean, gizarte-sareak oso lagungarriak dira zure lana zabaltzeko eta publikoarengana ailegatzeko: abesti bat igo, partekatu egiten da, eta jendeak zure lanaren berri du”.

*“Bizi dudana
mintzatzen naiz,
sentimenduez; horrela
lortzen dut horiek guztiak
hobeto aztertzea”*

HODEI "PERI" | rap-abeteslaria

Hodei “Peri” Derioko gaztea da, eta rapa barrukoa bideratzeko eta ordenatzeko modutzat du. Bere lana gizarte-sareetan dago ikusgai, eta horretan bizipenak eta sentimenduak ditu hizpide. Bideo klip berria aurkeztuko du laster eta lehendabiziko maketa-edo grabatzeko asmoa ere badu. Derioztarrak argi du musikan zein edozein arlotan norbere printzipioei eustea ezinbestekoa dela.



"Gustatuko litzaidake berriro jendaurrean abestea, baina denbora- tarte honetan hobetu dudala jakinda"

Onartu duenez, perfekzionista da. "Lana dotorea egitea gustatzen zait, jakina, baina adierazten dudana benetakoa izatea nahi dut; burua ez behartu. Momentuaren arabera, denbora luzeagoa edo laburragoa eman dut konposatzeko: batzuetan, jarraian ateratzen zait dena; beste batzuetan, pixkanaka-pixkanaka idatziz joaten naiz". Rapa ez ezik, beste musika-estilo batzuk ere entzuten dituela esan digu, eta Zetazen gehien gustatzen zaion rap-abeslaria dela. "Nolanahi ere, batez ere inguruko pertsonengan ipintzen dut arreta, zeinek barruan dutena abesten kanporatzen baitute. Horren harira, esaterako, oso gertu sentitzen naiz Aitor Elozegi derioztarrarengandik".

Jendaurrean

Peri bi aldiz igo da agertokira. "Bilbo-roken eta Barakaldoko taberna batean. Lagunak etorri ziren eta oso ondo pasatu nuen: asko gustatu zitzaidan esperientzia. Gustatuko litzaidake berriro jendaurrean abestea, baina abesti gehiagorekin eta denbora-tarte honetan hobetu dudala jakinda".

Gimnasioko monitorea izateko titulazioa duen arren, enpresen administrazioa ikasten dabil, eta, ahal dela, ikasketak, lana eta musika uztartzen jarraitzeko asmoa du. "Konposatzen segitu nahi dut, ondo pasatzeko modua da eta. Dena dela, ez dut uste musikagintzan lan egingo dudanik; musika disfrutatzeko egiten dut eta ez dut inoiz pentsatu ogibidea edo zerbait serioagoa izan litekeenik. Bueno, batek daki etorkizunean zer gerta daitekeen. Bitartean, abestiak egiten jarraituko dut".

Etorkizunaren plana edozein izanda ere, Perik argi du gustatzen zaizkigun gauzak egin behar ditugula, eta beti gure idealen arabera jokatu. "Gauzak benetan gustuko ditugulako egin behar ditugu, eta gizarte-presioaren aurrean ez etsi".





POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Larabide Heziketa eta Sigueren Hezikuntzarako Ikastetxea

Unitzaga Ibaia Kalea, 1
48160 - DEPIO
Tel.: 94 403 40 60 | Fax: 94 403 40 61
info@txorierri.net
www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioko Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produktzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industriako Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

EUSKO JAURLARITZA
EKONOMIAZEN GARAPEN
ETA ADI-ERAKUNTZA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONOMICO E INFRAESTRUCTURAS





40 urte, milaka txori

HIESaren aurkako nazioarteko eguna

Pentsatzen dugunak, dakigunak edo sinesten dugunak, amaieran, ondorio gutxi ekartzen dizkigu. Egiten dugun hori da ondorioak dituen. John Ruskinek orain dela ia bi mende idatzitako esaldi hori Bizkaisida-HIESaren aurkako Bizkaiko herri batzordeko sare sozial batean agertzen da eta inoiz baino indar handiagoa du azken garaian.

1988. urtetik HIESaren aurkako nazioarteko eguna ospatzen da abenduaren 1ean. GIBaren infekzioaren prebentzioa eta sentsibilizazioa oraindik ezinbestekoa dela gogorarazten digu urtero, baita detekzioaren garrantzia ere, ezinbestekoa delako kutsatzea saihesteko eta birusa duten pertsonen bizitza duina eta produktiboa izan dezaten bermatzeko.

Gure inguruan bi elkarte ditugu aspalditik HIESaren aurka lanean, lehen aipatutako Bizkaisida-HIESaren aurkako Bizkaiko herri batzordea eta T4 Elkartea. Biak Bilbon kokatuta daude eta bien helburu nagusia, infekzioaren prebentzioan lan egiteaz gain, GIB-a duten pertsonen bizi kalitatea hobetzea da.

Informazio gehiagorako:

HIESaren aurkako Bizkaiko herri batzordea: consultas@bizkaisida.com
T4 Elkartea: info@asociaciont4.org

Emakumeen karga mentalak gora egiten du Gabonetan

Karga mentala etxea administratzeak dakarren eta gutxi baloratzen den lan gisa itzuli daiteke. Lan horrek behartu egiten ditu emakumeak etengabe lan egitera, fisikoki eta mentalki; izan ere, kontuan izan behar dituzte beti xehetasun guztiak eta egiteko falta diren gauza guztiak. Inguratzen gaituzten mikro-unibertso guztiei (lana, etxea, umeak, familia, lagunak...) lotutako pentsamenduez eta, gogoratzeko eta egiteko dauden gauzez betetako motxila astuna da.

Etxeko lanen artean, garrantzitsua da bi hauek bereiztea: batetik, lan fisikoa, hau da, supermerkatua joatea, arropa garbitzen jartzea, autoa tailerrera eramatea, pediatriarekin hitzor-

dua eskatzea...; eta, bestetik, mentala, eta hori izan ohi da astunena: zer behar den jakitea, antolatzea, egiaztatzea, aurreratzeko, erabakitzea, gainbegiratzea, planifikatzea...

Gaur egun, lanak hobeto daude partekatuta eta banatuta gizon eta emakumeen artean. Hala ere, etxearen antolakuntzaren rola emakumeen esku dago gehienbat. Karga mental hori handitu egiten da amatasunarekin edo menpeko pertsonak zaindu behar direnean. Karga horren ondorioak dira, besteak beste, estres- eta antsietate-mailak handitzea, loezina eta, batez ere, uko egitea norberarentzako denborari eta aisialdiari, kirolari edo jardura fisikoari, eta baita enpleguari edo enpleguan hobetzeari ere.

Gabonetan, etxeko lan-erritmoa askoz handiagoa da: erabaki egin behar da egun berezi horietan zer bazkaldu eta afaldu; bazkari eta afari horiek prestatu; erosi eta aurrekontuak egin; opariak pentsatu; apaingarriak jarri eta kendu; eta oporretan dauden umeekin zer egin erabaki.

Beraz, behar-beharrezkoa da lanak egiazki banatzea, eta urte osoan zehar familiako kide guztien artean egitea, bakoitzak ahal duen neurrian.



Euskaldun zahar eta berrien akatsak

Sasoi batean euskaldun zahar guztiak euskalki jakin batean hitz egiten zuten eta euskaldun berriek euskara batuan. Gaur denetarik dago, baita batuaz berba egiten duten euskaldun zaharrak eta euskalkia primeran ikasitako euskaldun berriak ere. Euskaldunok, talde batekoak zein besteak izan, tarteka jokaera desegokiak izaten ditugu. Euskararen erabilerrari traba egiten dioten jokaera horietako batzuk ekarriko ditugu hona:

Euskaldun zaharren akatsak

- Euskara ikasten dabilenari erdaraz egitea, "ez sufriarazteko".
- Euskara ulertu bai, baina ondo egiten ez duenari erdaraz egitea.

- Pazientzia gutxi izatea ikasten dau denekin.
- Bigarren mailako euskalduntzat sentiaraztea batuaz egiten duena.
- Euskara patrimonializatzea. Gu gara euskaldun peto-petoak.
- Euskara batuko "hitz arraroak" modu barregarrian hartzea (esnegaina, helbideratu).

Euskaldun berrien akatsak

- Ezkutatzea euskalduna dela, ikasten dagoela.
- Ez eskatzea besteei euskaraz jarraitzeko.
- Erdaraz bezala (azkar, zehatz) hitz egin nahi izatea berehala.

- Hizkuntza batetik bestera pasatzeko "auto-debekua" (erdara hutsez edo euskara hutsez).

- Euskalkiaren zailtasuna azpimarraztea.
- Herri-hizkeran erabiltzen diren erdarakadak zuzentzea edo saihestea, norekin ari den kontuan izan gabe.

Seguruenik ezagunak egingo zitzaizkizun egoera horietako asko. Baina, edonola ere, bada garaia euskaldunok bereizten gaituzten desberdintasunak azpimarrazteari utzi eta batzen gaituzten espazioak bilatzeko. Hori eginez gero, euskara "GEHIAGO, GEHIAGOREKIN ETA GEHIAGOTAN" erabiliko dugu, seguru!



Aulki hutsak Gabonetan

Gabonak, kaleetan argiak piztuta, txikitako gogoetak, umeen algarak, dotore atondutako mahaia, urteroko eztabaidak,... Familia bakoitzaren sinesmen erlijiosoak alde batera utzita, gure kulturen, Gabonetako jaien esanahiak lotura zuzena du familiaren eta giza talde baten parte izatearen sentimenduarekin. Gabonak ospatzen ditugu etxera itzuliz eta mahai baten inguruan. Batzuentzat zorionaren arrazoia izan daitekeena, beste batzuentzat tristeziarena baino ez da. Aurtengo Gabonak, dudarik gabe, ezberdinak izango dira guztiontzat. Eta egoera honek, bai umei, bai nagusiei, egonezina eta ziurgabetasuna sortzen digu.

Mahai dotore horien inguruan aulki hutsak egon daitezke, betiko joan direnak, noizbait itzuliko direnak, hautsitako loturengatik bueltatuko ez direnak, urrun daudenak edo pandemiaren ondorioz hartu beharreko neurriengatik gurekin gaua pasatzeko aukerarik izango ez dutenak. Faltak eta egoera berezi horrek sortutako emozio marea honetan ez itotzeko eta zaintzeko lagungarri izan daitezkeen klabe batzuk partekatu nahi ditugu.

Egoera onartu eta gertakariei aurre hartzea

Aurten galera asko bizi izan ditugu, normaltasuna galdu dugu, lana agian, muxuak eta besarkadak, lagunaren arteko betiko harremanak, plazer txikiak eta aurten, ezagutzen dugun Gabon garaia ere ezberdina izango dela onartu beharko dugu. Egoera hau onartzeak bizi garen errealitatearen egokitzen lagunduko digu eta goatzeko beste aukera batzuk bilatzen.

Oso lagungarria izan daiteke egoerak ekarriko duenari aurre hartzeko gai izatea, egunerokotasunean eta egiten ditugun gauza txikietan arreta jartzea, haiekin gozatzea.

Gure burua hobeto ezagutzea eta esperientzietatik ikastea

Hilabete asko daramatzagu galera askori aurre egiten eta onartzen, taldeka edo bakarka. Horrek guztiak sortzen dituen emozioak kudeatzeko orain arte lagungarriak izan diren estrategiak az-

tertzeko ariketa egitea baliagarria izan daiteke.

Umeei segurtasuna ematea eta haiekin komunikatzea

Askotan helduok gure antsietateak eta egonezinak proiektatzen ditugu ume eta gazteengan, gertatzen ari dena ezkutatzeko diegu, sufrimendu horretatik "libratzeko" nahian. Oso baliagarria da gure seme-alabekin gaiari buruz hitz egiten hastea, egoera ulertzen laguntzeko eta

horrek sor dezakeen anibalentziari izena jarritz. Sormena erabiliz imajina dezakegu zelan atondu etxea, beste era bateko opariak egin...

Data hauen benetako esanahian sakontzea

Urte amaiera hau zehazki nolakoa izango den ez dago gure esku, baina bai edukiko dugun jarrera. Ospakizun intimoagoak izango ditugu, umeentzako magikoak eta heldu eta nagusientzako aukera berri bat izan daitezkeenak. Baina, ezin dugu ahaztu besteak zaintzeko modurik onena etxean geratzea dela eta beharrezkoak ez diren bidaiak eta bilerak saihestea.

Egurra argitaletxea, Martinez de Lezearen lehen thrillerraren agertokia

t: Itxaso Marina Ondarroa / a: Erein

Martinez de Lezearen esanetan, intrigazko liburua idaztea erronka izan da, eta, aurrekoetan moduan, asko gozatu du istorioaren hariak lotzen. Istorioa Bilbon gertatzen da, 2019. urtean. "Hasiera batean, hura 2020. urtean kokatzea pentsatu nuen, baina gaur egungo egoera dela-eta erabaki nuen hobe zela urte bat atzera egitea: pertsonaiak ezin dira egun osoan maskara jantzita leku batetik bestera joan". Desafioari gogotik aurre egin, eta kontakizunari erraz eman dio itxura. "Informazioa batu behar izan dut enpresa-kontseilua nola eratzen den jakiteko eta akzioen gainean gehiago ezagutzeko; hala ere, gainerakoa erraza izan da badakidalako nola bizi garen, nolako arropa erabiltzen dugun..."

Eleberrian, aititek sortutako editoria-laren agintea hartzeko, Egurra familiaren kideen azpijokoak aurkezten dizkigu. "Ohiko gertaera da, enpresa handietan zein txikietan, baita baserrietan ere: aititek martxan ipintzen du negozioa, seme-alabek mantentzen dute eta ilobek hondatzen dute". Aitortu digunez, gutxi daki enpresei buruz, baina asko liburuei buruz, eta horregatik erabaki zuen trama argitaletxe batean kokatzea. "Era berean, argitalpengintzaz pentsatzen dudana, edo zati bat behintzat, esateko aprobe-txatu dut; zerbaitengatik Egurra familia da".

Izan ere, fikziozko pertsonaien ahotan ipini ditu argitaletxe-munduaren eta estilo batzuen gainean egindako hausnarketak. "Zenbait argitaletxe-mota erakutsi nahi nituen. Egurra argitaletxea


Toti Martinez de Lezeak *Egurra S.A.* nobela argitaratu berri du. Oraingo honetan, idazlea thriller bat idaztera animatu da, eta trama familiako argitaletxe batean kokatu du. Ohi denez, Erein argitaletxeak euskaraz eta gaztelaniaz kale-ratu du larrabetzuarraren azken lana.

beste askoren moduan hasi zen: liburu-biltegi txikia argitaletxe txikia bihurtzen da, eta, gainera, literatura-bokazioa du; baina ilobak eta kanpokoak ailegatzen dira eta enpresa enpresa hutsa bihurtu nahi dute, eta berdin die zer saldu. Estatuko argitaletxerik handiena izateko asmoz, negozioa liburuekin zerikusi gutxi duten esparruetara hedatzen dute, hala nola egunkarietara eta telebistetara. Hori negozioa egiteko modua da; ez editorea izatea". Hortaz, idazleak argitalpengintza-

ri lotutako kontuak agertzen ditu *Egurra S.A.* obran, esaterako, benetako editorea denaren eta ez denaren arteko antagoinismoa, sari faltsuak, azoka handiak, zerbait kontatzeko duen idazlea eta, idazle ona ez den arren, idazle bikaina dela uste duena, beste argitaletxe batzuei egileak lapurtzen dizkieten argitaletxeak, erositako erreseinak eta liburuak goitik behera berridazten dituzten idazle mamuak.

Lerro hauek idazterakoan, larrabetzuarra Nur gaztetxoentzako ipuin-bildu-

*Pertsonaien ahotan
ipini ditu argitaletxe-
munduaren eta estilo
batzuen gainean
egindako hausnarketak*



maren hurrengo emanaldia, hamaseigarrrena, amaitzen zebilen. "Udaberrirako argitaratuko da. Bestalde, laster hasiko dut nobela berria. Antzina gertatzen diren 22 eleberrri inguru idatzi ditut, istorio batzuk 36ko gerraren testuinguruan ipintzera ere animatu naiz, eta azkena gaur egungo garaietan kokatu dut; editoreari esan diot pentsatzeko zer idaztea nahi duen: berriro ere thriller bat idaztea nahi badu, gustura egingo nuke; benetan motibatzen nauen gaia topatu baino ez dut egin behar".

Hainbat saltsatan

Bitartean, hainbat saltsatan nahastuta dabil. Mikel eta Esti Markez aita-alaben *Azal berritzen* diskoaren "Bila nazazu" kantaren letra Martinez de Lezeak idatzi du, eta diskoan idazle larrabetzuarraren letra eta ahotsa dituen beste kantu bat ere sartu da. "Poz-pozik nago. Markezekin hitz egin nuen oso pozik nengoela azaltzeko eta esan zidan nahi izanez gero poema gehiago bidali ahal nizkiola. Ordu erdi pasatu zen, eta beste poema bi bidali nizkion (kar-kar).

"Editoreak berriro ere thriller bat idaztea nahi badu, gustura egingo nuke; motibatzen nauen gaia topatu baino ez dut egin behar"

Egurra S.A. nobelaren trama 2019. urtera aurreratu beharra izan badu ere, COVID-19ak ez dio bizitza asko aldatu. "Etxean lan egiten dudalako. Gainera, herri txiki batean bizi naiz eta maskara jantzita ere guztiok ezagutzen dugu elkar. Lorategia dugu... Beste aldetik, egia esan, hitzaldien, musikariak lagundutako ikuskizunen... falta sumatzen dut, eta pandemia hasi aurretik baino askoz hitzaldi gutxiago eskaintzen nabil. Baina, beharbada, geldialdi hau ondo etorri zait irakurri gabe nuena irakurtzeko, filmak ikusteko, musika entzuteko, gai historiko gehiago ikasteko, lagun, musikari eta

"Liburuak saltzeari beste modu batean heldu beharko diogu; adibidez, 800 liburu-dendak baino gehiagok onlineko plataforma bat sortu dute"

egile berriak ezagutzeko...; hau da, denbora ezagatik lehen ezin nituen gauzak egiteko".

Argitaletxeetan, berriz, nabaria da pandemiaren eragina. "Ez da lehen beste aurkezpenik egiten eta topaketetan jende gutxi dago, maskara jantzita eta aurpegia ikusi barik; liburu-denda txiki batzuk itxita daude eta zabalik daudenetan ezin dira liburuak ukitu... Bueno, egoera aztertu eta liburuak saltzeari beste modu batean heldu beharko diogu; adibidez, orain dela gutxi Estatuko 800 liburu-denda baino gehiago batu dira eta onlineko plataforma bat sortu dute".



GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

t/a: Gaizka Eguzkitza

Has gaitezen hasiera-hasieratik. Egia da Madrilen jaio zinela?

Bai. Aita han zebilen lanean. Bilbon jaio behar izan nintzen, baina azkenean espero zuten baino hilabete lehenago jaio nintzen.

Hala ere Derion hazi zinen. Herria izugarri aldatu da azken urteotan, ezta?

Bai, aldaketa ederra. Eta onerako. Herria ganoraz hazi da eta gaur egungo zerbitzuen sarea oparoa da. Horregatik, hainbat gazte etorri dira Deriora bizitzera, nahiz eta alde zuzenetik herriarekin loturarik ez izan.

Zelan gogoratzen duzu haurtzaroa?

Gogorapen itzelak ditut. Aldekonek bizi ginen eta batez ere bertan jolasten nintzen lagunekin. Futbolean Aldekoneko

"Azken 20 urteotan Bilbon bizi izan naiz, baina harro-harro esaten dut derioztarra naizela"

"Kirol saila eraginkorra izango ez balitz, ezinezkoa izango litzateke Athleticen duen bezalako ereduari eustea"

elizako plazan, geure San Mames futbol-zelaian, jokatzen genuen.

Nolako lotura duzu Deriorekin?

Senide batzuk bertan bizi dira: gurasoak, Lander anaia, Nekane arreba, ilobak... Nire sustraiak Derion ditut, nahiz eta askotan kanpoan bizi izan. Azken 20 urteotan Bilbon bizi izan naiz emaztearekin eta seme-alabekin, baina harro-harro esaten dut derioztarra naizela.

Hainbat urte pasatu dira futboletik erretiroa hartu zenuenetik. Zer egin duzu azken urteotan?



"Athleticen ereduaren alderik atseginena harrobia lantzea da"

ANDONI AYARZA | Athleticen kirol-zuzendariaren ondokoa

Andoni Ayarza Athleticen jokatu zuen lehenengo derioztarra izan zen. Duela urte bi talde zuri-gorrira itzuli zen Aitor Elizegi presidentearekin batera. Ayarza Rafa Alkortaren laguntzailea da Athleticen kirol sailean eta, besteak beste, harrobiko taldeak kudeatu behar ditu. Beste batzuen artean, Txorierrri, bere lana eta Athletic izan ditugu hizpide Derioko futbolari ohiarekin.

Zenbait komunikabidetan egin dut lan, batez ere partiduak aztertzen eta komentatzen. Gainera, komunikazio-arduradun ibili naiz gizarteari eta kirolari lotuta erakunde batzuetan.

Eta kazetaritza, noiz ikasi zenuen?

Batxilergoa bukatu nuenean kazetari-tza ikastea erabaki nuen. Garai hartan, Bilbao Athleticen ibiltzen nintzen eta guztira 10 urte eman nituen karrera bukatzeko. Kostatu zitzaidan! (kar-kar). Klaseko nagusia nintzen, baina ziur nongoen esfortzuak merezi zuela!

Elizegirekin batera itzuli zara Athleticera. Zelan egin zenuen bat presidentearen taldearekin?

Alkorta eta biok Jose Antonio Jainagaren taldean ibiltzen izan ginen, baina azkenean ez zen Athleticen hauteskundetara aurkeztu. Beraz, Elizegik deitu zigun eta bere lan-taldean sartu ginen.

Zertan datza zure lana Athleticen?

Bulegoko zein landako lana da nirea. Lezaman hainbat sail ditugu eta horiek guztiak gainbegiratu eta antolatu behar ditut: *scouting*-a eta jokalar berriak fitxa-



tzea, entrenamenduen metodologia, hartzartutako klubak, arreta integrala... Gainera, beste betebeharrak ere badituzte: oinarritzko futbolaren taldeen jokalariek eta teknikariak kudeatzea, kontratuak, bajak ematea, jokalariekin, senideekin eta agenteekin bilerak egitea... Egunerokotasuna gogorra bezain zirrargarria da.

Batzuek esaten dute kirol-saila ez dela Athleticen beste klub batzuetan bezain garrantzitsua, talde zuri-gorriaren merkatua oso txikia delako. Zer esango zenieke?

Edozein iritzirik errespetatzen dut, errespetuz adierazita badago. Hala ere, kirol-saila eraginkorra izango ez balitz, ezinezkoa izango litzateke Athleticen duen bezalako ereduari eustea. Izan ere, kirol sailak klubari eusten dizkioten oinarriak babesten ditu eta helburuak lortzeko bidea finkatzen du. Uste dut beste klubetan baino askoz garrantzitsuagoa dela, kirol saila fitxaketak egitea baino askoz gehiago baita.

Udako merkatuan, Athleticen Fernando Llorente fitxatzeko aukera izan

zuen. Azkenean, errioxarra ez zen Bilbora etorri, baina klubak ez zuen itxura onik eman. Zure ardura zuzena izan ez arren, zer deritzozu horri?

Bakoitzak bere iritzia izango du. Nirea ez dizut emango. Kirol sailak balore hauek adierazten ditu: batasuna, konpromisoa, gardentasuna... Horiek guztiak funtsezkoak dira guk nahi dugun kluba osatzeko: tradizio eta anbizio handikoa, sentimenduz betetakoa, lehiakorra... Gure ustez, harrobia lantzea eta partiduetan irabaztea ez dira batere kontraesankorrak.

"Athleticen eta bere harrobiaren ereduak ez du zerikusirik beste klubek dutenarekin"

"Umeek disfrutatu egin behar dute, etengabe hobera egiteko. Eta bidearen amaieran, lehen taldea dago euren zain"

Harrobia lantzea polita da emaitzak ematen dituenean, baina fruiturik ikusten ez denean, etsigarria da?

Athleticen ereduaren alderik atseginena harrobia lantzea da. Klubera etorri ginenetik, helburuak sobera bete ditugu. Izan ere, talde guztiek emaitza onak lortu dituzte eta hori ez da kasualitatez gertatzen. Eta amaiera bikaina emateko, zenbait jokalarik gazte hasi dira lehenengo taldean jokatzen.

Zuk aipatu duzu, jokalarik gazte batzuk gero eta partidu gehiago dabilta jokatzen lehen taldean. Momentu ona da harrobirako, ezta?

Zalantza barik. Lekukoa Lezaman dugu.

Eta Vicente derioztarra? Geratuko da lehenengo taldean?

Iñigo talentu handiko jokalaria da, ez dago zalantzarik, eta lanean dabil lehenengo taldean jokatzeke eta hor betiko geratzeko. Momentuz debuta egin du. Lehenengo taldean urte askoan geratzea lortuko ahal du!

Nico Serrano eta Nico Williams jokalarik gazteak fin dabilta. Zelan ikusten dituzu?

Futbolari onak dira, bai, baina arreta eurei bakarrik eskaintzea ez da zilegi. Oso futbolari onak ditugu harrobiko talde guztietan. Hau da gakoa: Lezaman etengabe sortu behar dira jokalarik lehiakorrak. Horrela, talde guztien maila handiagoa izango da.

Beste euskal talde batzuk hasi dira harrobia hobeto lantzen. Lehia horrek

Lehenengo derioztarra, Athleticen

Andoni Ayarza Zallo (Madril, 1965) txikitik hasi zen futboleko jokatzen, kalean, lagunekin. "Aldekone FK taldea sortu genuen, Athleticek Lezaman Aste Santuan antolatzen zuen txapelketan parte hartzeko. Azkenean ez zidaten jokatzen utzi, gazteegia nintzelako. Arrantza itzela harrapatu nuen (karkar)", esan digu. Ayarza gazteak ez zuen itxaropena galdu eta hurrengo urtean, 13 urte zituela eta Seminario ikastetxe-ko taldean jokatzen zuela, Athleticek fitxatu zuen, Aste Santuko txapelketa jokatu eta gero, hain zuzen ere.

Derioztarraren esanetan, "han hasi zen ametsa". Urte batzuk geroago, gazte mailan zegoela, San Mamesen jokatzen zuen lehenengo aldiz. "Ez dut inoiz ahaztuko. Denboraldi hartan Espainiako txapelketa izan ginen, eta finalean Real Madril 2 eta 1 irabazi genion. Nik gol biak sartu nituen. Izugarrizko garaipena izan arren, oso oiartzun txikia



izan zuen, lehenengo taldeak Liga eta Kopa irabazi zituelako. Hala ere, sari ikaragarria jaso genuen, gabarran joateko aukera izan genuelako. Irabaztea oso pozgarria da, noski, baina poza askoz handiagoa da maite zaituen jendea poz-positik ikusten



oztopoak jartzen dizkio Athletici? Zer egiten du Athleticek beste taldeen mehatxua ekiditeko?

Athleticen eta bere harrobiaren ereduak ez du zerikusirik beste klubek dutenarekin. Athleticen arazoren bat sortzen denean, etxean dugu konponbidea. Eta hori Athleticen baino ez da gertatzen. Ez ditut beste taldeak mehatxutzat ikusten.

Guk balio hauek bultzatzen ditugu: kualifikazioa, konpromisoa, exijentzia, diziplina, maitasuna... Umeek futboleko jokatzen disfrutatu egin behar dute, etengabe hobera egiteko. Eta bidearen amaieran, lehen taldea dago euren zain.

Kopa irabaziko dugu?

Bai, horixe! Eta gabarra berriro ateratzea liluragarria izango da.



Ayarza, 1988-89 denboraldiko hamaikakoa, San Mamesen. Ezkerraldean, 1991eko kromoa.

duzunean. Bereziki, nire aita, betidanik Athleticen bazkidea izan delako".

1987an debuta egin zuen lehenengo taldean. Ayarza Athleticen jokatu zuen lehenengo derioztarra izan zen. Hala ere, 1989an Valladolidera joan zen. "Vallado-

liden oso esperientzia polita izan nuen: esate baterako, Errekopa jokatu nuen, eta Maturana izan nuen entrenatzaile. Izan dudana onenetakoa izan da".

1991n Athleticera itzuli zen, baina hurrengo urtean min hartu zuen sorbaldan

eta gainera ez zen Jupp Heynckes entrenatzailearen gustukoa. "Lesioak futbolaren alderik okerrrena dira. Lesionatuta ibili ez banintz, agian partidu gehiago jokatuko nituen, baina zer egingo dugu. Nik jokatu nahi nuen, zoriontsua izan". Beraz, Rayo Vallecano taldera joan zen, klub berezia. "Auzoan nortasun handia dute, Valleca-sekoak izateko harrotasun zoragarria. Hainbat lagun ezagutu nituen han: Ruiz Mateos, Camacho, Polster, Hugo Sanchez, Paco Jemez, Onesimo...".

Ayarzak 32 urte zituela utzi zion futboleko jokatzeari. Azken geltoki biak, Marbella eta Barakaldo. "Marbellan eguraldi zoragarria dago eta oso atsegina da han bizitzea. Han bukatutakoan, etxera itzuli nintzen eta Barakaldon utzi nion jokatzeari. Guztira, 12 urte eman nituen profesional mailan eta horietako zazpi, Lehenengo Mailan. Gainera, 21 urte azpiko Espainiako selekzioarekin partidu batzuk jokatu nituen. Uste dut curriculum ona dela".

Txorierri gure artean euskaraz berbaz

txori tokia



ERDU GEUGAZ!
EGIZU EUSKARAZ!



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



2020-2021 EKO TALDEAK:

GOIZEZ

A2, B1, B2, C1	Asteleheneretik ostegunera, astean 10 ordu
B1	Asteleheneretik ostegunera, astean 4 ordu.
A1	Asteleheneretik ostegunera, astean 4 ordu.

ARRATSALDEZ

A1, B1, B2	Asteleheneretik ostegunera, astean 6 ordu.
C1	Asteleheneretik ostegunera, astean 4 ordu.
	Asteleheneretik ostegunera, astean 7,5 ordu.
	Ostiral arratsaldeetan trinkoa, astean 4 ordu.

AUTOIKASKUNTZA TALDEAK

AITZIBER LEKERIKA**ERREKAONDO JATETXEA (ZAMUDIO)**

Aitziberrek eta Ager nebak duela 25 urte sortu zuten Errekaondo jatetxea Zamudion. Horrezaz aparte, familiak beste lau jatetxe kudeatzen ditu, Gaminiz, Zamudion, eta beste hiru, Bilbon: Txocook, Bascook eta Basquery. Lekerikaren bezeroak, batez ere, Parke Teknologikoko langileak dira. "Lehen menuak-eta eskaintzen genituen eta gaur egun, baita ogitartekoak eta pizzak. Egoera zaila da, % 20 baino ez baitugu fakturatzeko", esan digu. "Eusko Jaurlaritzak esan du dirulaguntzak banatu dituela, baina guri Zamudioko Udalak baino ez digu eman. Dirulaguntzak jaso beharrean, gastu finkoak arindu nahiago izango nuke: gasa, telefonoa, elektrizitatea, aseguruak, langileen gizarte-segurantzak... Ezin dugu lan egin, baina hori guztia berdin-berdin ordaindu behar da".


ALMUDENA DIAZ
AITOR PORTUONDO
BIZKARGI (DERIO)

Eurak eta alaba autonomoak dira. Tabernan pintxoak-eta egiten dituzte. Lehen itxialdian bi egunean izan zuten zabalik, "baina irabazitakoa ez zen inondik ere nahikoa gastuak ordaintzeko". Gainera, dirulaguntza jasotzeko, negozioa itxita egon behar da. "Bakarrik udal-laguntza jaso dugu; Jaurlaritzak oraindik ez digu martxokoa eman, eta ea zer gertatzen den onartu berriarekin". Fakturak, ordea, ordaindu behar dituzte, eta aurrezkiak horretarako erabili. "Diru-sarrerarik gabe, bidezkoa da gasturik ere ez egotea". Etsita dabilta eta ez dute ostalaritzaren nahitaezko itxiera ulertzen. "Tabernetan zorrotz jarraitzen diegu segurtasun- eta desinfektatze-neurriei. Zer gertatzen da garraio publikoan, parkeetan...? Urkulluren esanetan, errua ez da gurea, baina itxi digu negozioa... Bidegabekoa da oso".

GALDER URIARTE

PATXI KOOP (ZAMUDIO)

Kooperatiba orain dela 36 urte sortu zen. Hasieran garagardoa banatzen zuten; gero, beste edari batzuk; eta gaur egun, taberna batek behar duen edozein gauza: edariak, janaria, garbitzeko produktuak... Guztira, 55 langile daude, eta horietako 26 kooperatibistak dira. "Hori da gogorrena, gure enpresatik 55 familia bizi direlako. Maiatzean langile guztion soldatak % 30 jaitsi genituen. Egoera txarra da, eta horri eusten bazaio, erabaki desatseginak hartu beharko ditugu", aipatu du Galderrek. "Gure bezero nagusiak jatetxeak eta tabernak dira eta euren ispilua gara: haiek txarto badabiltza, gu ere bai. Jaietako txosnak ere hornitzen ditugu, baina aurten ez dugu ezer egin jairik egon ez delako. Eta guk ez dugu diru-laguntzarik".



IÑAKI BEGOÑA

IAZI (DERIO)

Familiako jatetxea duela 43 urte zabaldu zen. Gaur egun itxita dago, eta Iñakik beldur dio itxiera betiko ez ote den izango. "Eguneko menuaz gainera, plater konbinatuak eta eguneko platera ematen hasi ginen irailean, baina, telelana-eta tartean, bezero-kopuruak behera egin du: lehen, 100 menu saltzen ziren; orain, 20. Eta barran ateratzen denarekin ere ez da nahikoa gastuak ordaintzeko". Bere ustez, herriko ostalariek ondo bete dute agindutakoa. "Helburua jendetza elkartzea ekiditea bazen, beste neurri batzuk hartu zitezkeen, esaterako, asteburuko ordutegia murriztea". Bera eta arreba autonomoak dira eta hiru langileak ABEEEn dituzte. "Guztionez etorkizunak kezkatzen nau. Jaurilaritzaren dirulaguntza jasotzen bada, negozioa lau hilabetez izan behar da zabalik; nork ziurtatuko dit lana egongo dela?".



MAITE MENDEZ**AMAIRU (ZAMUDIO)**

Taberna duela zazpi urte hartu zuen eta gehienbat gosariak ematen ditu. Hura itxita du, eta bi langileak, ABEEEn. Politikarien begirunerik ezaz kexatu da. "Gutxienez abenduaren 10era arte itxita egoteak handituko du jada dudazulo ekonomikoa. Taberna derrigorrez ixten badidazu, justua da bere gastuak zure ardurapean hartzea, eta niri dirulaguntza bat ematea, etxera jatekoa eraman ahal izateko". Hartutako neurriak irrigaiak dira, bere ustez. "Ez du zentzurik 4.000 euroko gastua duen negozio batek bakarrik 100 euro irabazi ahal izateak. Bestalde, kafe bat eskatzeko, bezeroak telefonoz deitu behar du tabernara, baina okindegian ilaran ipin daiteke? Klean edaten eta jaten dabiltzana ez legoke hobeto taberna edo terraza garbi batean?". Negozioa beste behin ixtera behartzen badute, bertiko izango da ziurrenik.

**JANIRE GARCIA
RUBEN ESTEBANEZ****GAZTEDI (LEZAMA)**

Bikoteak sei urte daramatza tabernan eta duela hiru urte, Pili, Janireren ama, ere hasi zen bertan lanean. Jatetxeak bezero mota bi ditu: "Astegunetan, inguruko langileek eguneko menua jaten dute; eta asteburuetan, herriko jendeak hamburgeresak, plater konbinatuak... eskatzen ditu", esan digu. Gaztedi itxita dago, baina ez dute etxera eramateko janaria egin nahi izan. "Eskaera-kopurua oso al-dakorra da: batzuetan, gainezka eta beste batzuetan, bat ere ez. Ez dugu zerbait prestatzen hasi nahi, eta gero hori, itxialdia amaitzen denean, eskaintzeari utzi. Gure eskaintza egonkorra izan behar da, bestela, bezeroek ez dute jakingo zer eskatu".

MARIA FE RODRIGUEZ

BIDEGORRI (ZAMUDIO)

Berak eta senarrak 2001ean zabaldu zuten taberna-kafetegia. Zazpi langile dituzte eta horrek gastuak handitu egiten ditu. Bidegorri eguenetik domekara irekitzea erabaki dute, bazkaltzeko zein afaltzeko, plater konbinatuak, entsaladak, sandwichak... eskaintzeko. "Ez da lehen bezala, baina zerbitzua eman nahi genien enpresetako eta gainerako bezeroei; jendea oso ondo erantzuten ari da". Bidegorri 12:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:00etara dago zabalik. "Etxeratze-agindua 22:00etan dela kontuan hartuta, uste dugu zerbitzatzeko-ordua luzatu ahalko litzatekeela". Etorkizuna ziurgabetasunez beteta dator, eta batez ere langileen egoerarekin daude kezkatuta. "Bost langile ABEEen ditugu eta sukaldari biak ordu batzuetan etortzen dira aste-buruan; jendeak bere soldata behar du etxeko gastuak ordaintzeko".



AITOR LAITA

ENAITZ TABERNA (LEZAMA)

Aitorrek azken bost urteotan izan du Enaitz tabernaren ardura. Gaur egun, negozioa itxita dago, "baldintza hauetan irekitzea merezi ez duelako". Aitor Larraetzun bizi da eta, horregatik, ez du udalen diru-laguntzarik hartu. "Lezaman, herrian erroldatuta ez nagoelako; eta Larraetzun, taberna Lezaman dudalako. Hau komerial!", esan digu. Jendeak adorea ematen dio, baina etorkizuna zalan-taz beteta ikusten du. "Bezero batzuk beldur dira, baina espero dugu tabernetara itzultzea. Badirudi ostalariok garelako errudunak eta horrek amorrua ematen dit. Urkulluk ezetz esaten du, baina Eusko Jaurlaritzak ixteko agindua nori eta geuri eman digu".

Txorierriko familien errentak, sarrera-motaren arabera

t: Jose Luis Barrenetxea / iturria: Eustat

Pertsonen eta familien diru-sarrerak lau iturritatik etortzen dira: lanaren ordainetik, kapital higigarriaren eta kapital higiezinen etekinetik, jarduera ekonomikotik eta transferentzietatik. Lehenengo lau grafikoetan, horiei dagozkien datuak azaldu dira miletan; azken grafikoan, bestalde, Txorierriko eta Bizkaiko datuak alderatu dira eta pobrezia eta aberastasunaren arteko aldeak agertu dira.

Errenta-mailak, Txorierrin eta Bizkaian

Azken grafikoan, Txorierriko eta Bizkaiko familien errentak hamar mailatan alderatzen dira. Pobrezia eta behartasun erlatiboa pairatzen dutenen datuei erreparatuta, Txorierriko portzentaia Bizkaikoak baino txikiagoak dira; errenta ertainen datuei dagokienez, Bizkaiko portzentaia han-

Urtarrileko alean, herriz herri eta hamar ataletan, familien errentak zelan banatzen ziren azaldu zen. Oraingo honetan, eta 2017ko datuetan –jakinarazitako azkenak– oinarrituta, errenta horiek nondik sortzen diren argitzen saiatuko da.

diagoak dira; eta maila handiko errenten kasuan, Txorierrikoak handiagoak. Pobrezia eta behartasun erlatiboan dauden familiak % 17 dira Txorierrin, eta % 21,7 Bizkaian. Aldiz, 50.000 eurotik gorako errenta duten familiak % 36,9 dira Txorierrin, eta % 29,3 Bizkaian. Txorierrin maila handiko


errentak egotearen arrazoien artean egon litezke azken hamarkadetan herri batzuetan egindako goi-mailako etxebizitzak eta kanpotik etorritako biztanleak.

Gaur egungo egoera

Besteak beste, Bizkaian, ongizatezko gizarteari eusten dion zerga-bilketaren pisa hau izan da azken urteetan: pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ), % 37; balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ), % 37; zerga bereziak (hidrokarburuak, tabakoa eta alkohola), % 10,3; eta sozietateak, % 9,4.

2019koarekin alderatuta, 2020ko lehen seihilekoan diru-sarrera horiek % 12,8 egin dute behera, eta, hortaz, subjektu ekonomikoen eta administrari politikoen erronka erabakigarria izango da gastu sozialari eta jarduera ekonomikoari erantzuteko beharreko diru-kopuruak egungo atzeraldian bermatzea.

1-Lanaren errentak




2-Kapital higigarria eta higiezinen errentak



3-Jarduera ekonomiko errentak



4-Transferentzia errentak




Derio:	40.780 €
Larrabetzu:	46.572 €
Lezama:	54.606 €
Loiu:	58.019 €
Sondika:	45.320 €
Zamudio:	43.683 €
Bizkaia:	42.492 €

ERRENTA-MOTAK. AURREKO LAU GRAFIKOETAN ADIERAZITAKOA

1. LANAREN ERRENTAK: Txorierri, % 66 Bizkaia, % 61	2. KAPITALAREN ERRENTAK: Txorierri, % 8 Bizkaia, % 8	3. JARDUERA EKONOMIKOAREN ERRENTAK: Txorierri, % 5 Bizkaia, % 5	4. TRANSFERENTZIEN ERRENTAK: Txorierri, % 22 Bizkaia, % 27
Enplegatzaileak langileari ematen dion ordainsari osoa da, dirua izan edo ez; haren barruan Gizarte Segurantzari lotutako gastuak daude.	Irabaziak, dibi-denduak, gainbalioak eta abar kapital higigarria dira; eta landako eta hiri-lurreko ondasunen errentamenduak, kapital higiezina.	Ondasunen eta jardueren kudeaketaren bidez lortutako etekinak dira. Besteak beste, jarduera hauek aipatu daitezke: artea, kirola, nekazaritza, arrantza, jabetza intelektuala, industria eta merkataritza.	Derrigorrezko gizarte-prestazioak dira: pentsioak eta langabeziako, baliaezintasuneko, alarguntzako eta familiako sorospena, esaterako.

FAMILIA-ERRENTAK DEZILETAN (2017. URTEA)



“Ez dugu inoiz guardia jaisten”

Pandemiaren bigarren olatuan gaudela, oso momentu gogorra da zahar-etxeetan, birusa batez ere adinekoekin grinatzen da eta. “Ziur nago, nagusiak zaintzeko, egoitza guztietan ahal dena eta gehiago egiten dela”, adierazi du Marisol Couceiro Gurena Loiuko zahar-etxeko zuzendariak. “Neurri zorrotzak egonda ere, birusa sartu daiteke egoitzetara, baina ziurtatzen dut eskura ditugun baliabideak ipintzen ditugula, eta egunero oso erantzukizun handiari egin behar diogula aurre”.

Couceiroren esanetan, lerro hauek idaztean Gurena Loiuko zahar-etxean ez dago COVID-19arekin kutsatutako egoiliarrik. “Nolanahi ere, birusaren beldur gara, eta horregatik eta oso pertsona zaurgarriak zaindu behar ditugulako, ez dugu inoiz guardia jaisten: etengabe pentsatzen dugu zer gehiago egin dezakegun, eta simulazioak egiten ditugu nola jokatu ez ahazteko”. Horren harira, egoiliar baten alabak hitz hauek esan zizkion: “Gestapoa ematen duzue; birusa ez da hona sartzera ausartzen: burdin hesira ailegatu bezain laster, bira egiten du”. Couceiro oso eskertuta dago egoiliarren senideek neurriak onartzen dituztelako eta egoitzako langileen lana ulertzen eta babesten dutelako.

Azaldu duenez, abuztuaren 20ko Foru Aginduan ezarritakoez gain, ez dago bisitei lotutako murrizketa berezirik. “Murrizketa horiek udalerrria edo zahar-etxea eremu gorrian dagoenean izaten dira, eta hori gaur egun ez da gure kasua. Dena dela, egoera epidemiologikoa hobea izan denean, permisiboagoak izateko aukera izan dugu eta bisiten maiztasuna zein iraupena handitu ahal izan dugu. Inguru pribilegiatu batean gaude eta berdegune zabalak ditugu; horri esker, segurtasun-neurriak eta distantzia-tarteak beteta, malgutasunez jokatu ahal dugu”.

Egoiliar berriak beldurrez eta zalantza asko dituztela ailegatzen dira zahar-etxera. “Hala ere, egoitzaren segurtasun-neurriak eta aukerak ikusita lasaitu egiten



dira. Esaterako, egoiliar bakoitzari banako gela eta komuna emateko aukera dugu; hortaz, senar-emazteek edo senideek izan ezik, egoiliarrek martxotik hona ez dute logela partekatzen. Era berean, egongela eta jantoki handiak ditugu eta, ondorioz, lagun-talde txikiak osatu ahal ditugu eta pertsonen arteko distantziari eutsi ahal diogu. Bestalde, gel hidroalkoholikoa ipini dugu guztion eskura eta egoiliarrek egunero aldatzen dute maskara”.

Protokoloak

Gurenak tutoretzapeko apartamentuak ere badauzka. “Apartamentuetan bizi diren pertsonak ederto egokitu dira egoitzaren neurrietara. Informazioa hasiera-hasieratik jaso dute, eta badakite neurriek guztion osasuna bermatzea dutela helburu. Guk ere kontuan hartzen dugu eguneroko jardueretan aritzeko autonomia dutela, eta apartamentuetan bizi direla, etxean egotearen antzekoa delako.

Alabaina, logikoa denez, egoerak kezkatu eta larritzen gaitu; gainerakooi gertatzen zaigun moduan”.

Beste aldetik, eguneko zentroan ere oso protokolo zorrotzak ezarri dira. “Eguneko zentroan erabiltzen den protokoloaz gainera, beste bat egin zen garraiorako; baita beste bat ere, arroparekin zer egin eta etxean zein neurri hartu azaltzeko”. Tabernak eta jubilatuen etxeak itxita, nagusiek diote ez dakitela zer egin egunean, eta eguneko zentroan hobeto daudela. “Hemen seguru sentitzen direla esaten digute, eta hori entzutea oso pozgarria da, lantalde osoak egiten dugun ahaleginari saria delako”.

Couceirok gizarte osoak duen desira bera du: amesgaiztoa behingoz amaitu dadila. “Bitartean, espero dezagun gauden moduan jarraitzea eta gure lantaldeak elkarrekin lanean segitzea, guztion artean egungo egoera gainditu ahal izateko”.

*“Senar-emazteek
edo senideek izan ezik,
egoiliarrek martxotik
hona ez dute logela
partekatzen”*

t: Arrate Gaztelu Agirre

Aldizkari honetako urriko alean aipatzen nuen bezala, 2008ko krisiaz geroztik, Ongizate Estatuaren gainbeherarekin batera etorri den langile-klasearen pauperizazio-prozesua etengabea eta progresiboa da eta bizi-baldintzen kaskartzea eragin du. Osasun-krisiaren ondorioz, gainera, masa zabalaren pobretzea areagotu egin da.

Pandemiaren kudeaketa aitzakia hartuta, martxotik hona hainbat neurri hartu ditu goi-burgesiak (gobernua neurrien ezarpenerako tresna soil gisa erabilia), eta normalizatu egin da neurriek herritarron eskubide zibil eta politikoak urratzea (kontrol soziala areagotu egin da, gure bizi baldintzak okertzen jarraitu dute).

Masa-hedabideen kontakizunari erreparatuz gero, pairatzen ari garen gainerako neurriak osasun krisiak berak eragin dituela pentsatzera hel gaitzeki. Hala ere, zein puntutara arte da horrela?

Nor Nori Nork

COVID-19 kasuen gorakada nabaria izan da azken asteetan, eta bagenekien, lehenago edo beranduago, etortzeke zeuden neurri berriek gure egunerokotasunean aldaketak eragingo zituztela. Neurri horiek dituzten helburuen interpretazio egoki bat egin ahal izateko, ordea, ezinbestekoa da gertakarien ordena era egokian ulertzea.

2008an azaleratu ziren metaketa-fasearen mugek hainbat irtenbide mahai-gaineratu zituzten. Kapital finantzarioak, banku zentralen bidez, arazoa atzeratzea erabaki zuten, eta horrela, 12 urtez luzatu dute fase horren biziraupena, kapital-injekzio, bankuen erreskate eta abarren bitartez bizirik mantenduz. Hala ere, berreskurapenaren fikzioak eztanda egin du behin betiko, eta lehenago edo beran-

duago inposatu beharreko aldaketak ekarri ditu berarekin. Krisi sanitarioak badu dimentsio ekonomiko bat, baina agerikotik harago doa: esfera ekonomikoan eman beharreko aldaketen kareta gisa ari dira erabiltzen. Argi ikusten da hori neurrien nolakotasunean: langileon askatasun politiko eta sozialen murriztapenean zentratzen dira denak, arazo sanitarioari errotik heltzeko beharrezkoak diren baliabideak jartzean zentratu beharrean. Beraz, nor babesten dute neurriek? Nori eragiten die? Nork hartzen ditu?

Egoera honen aurrean, beharrezkoa da egoeraren irakurketa egokia egitea ahalbidetuko diguten gakoek hornitzea eta gertaeren sekuentzia aldatzea. Ezinbestekoa da, beraz, herritar ororen mesedetara egongo den osasungintza unibertsal eta kalitateko baten alde borrokatzea, eta askatasun eta eskubideen defentsan elkarrekin antolatzea eta mobilizatzea.

*“Arazo sanitarioari
heltzeko baliabideak
jarri barik, neurriak
langileon askatasunen
murriztapenean
zentratzen dira”*



LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai! jarraitu Facebooken

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK
Garbi-itunak, orokorrean
Autokoen konsumatzaileak
Mantentze garbi-itunak
Bulegoak eta lekualak
Orrun emisioak garbitzeko
Itasuntzak
Zabur bilketa
Besalde Plaza, 1 - B* Aldekone Tel: 94 406 49 92
48160 DERIO (Bizkaia) 656 712 443
loregarbi@euskalnet.net Fax: 94 406 49 93

Nire Autocasion NA
IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonos-Fax: 94 454 51 52
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com



a: Wallart

Gogoan eta hormetan

"Derioztarrak" egitasmoaren bidez, eta udalarekin elkarlanean, Wallart enpresako muralgileek kalera atera dituzte 50eko hamarkadako Derioko pertsonaia ospetsuak. Azaldu dutenez, proiektuaren helburua da Gernikako Arbola kalea eta Larrabarri ibilbidea dinamizatzea eta, horretarako, lokaletako eta garajeetako ateak-eta pintatzeko proposamena egin zieten bertako auzokideei eta merkatariari. Izan ere, ate horietako asko hondatuta egon dira, itxita urteak daramatzate eta.

"Proposamenak oso harrera ona izan du, kaleak hiri-artearen galeria txikia bihurtzeko aukera eman baitu. Galeria horretan, antzinako oroitzapenak gogora ekartzen dituzten bitartean, derioztarrak paseatu daitezke, eta irudiekin gozatu. Gainera, egitasmoak freskotasuna eta mo-

dernitatea ematen dizkio inguruari". "Derioztarrak" egitasmoak omenaldia egiten die 50eko hamarkadako Derioko pertsonaia esanguratsuei. "Udalaren artxibategian arakatu dugu herriko aitita-amamek gogoan dituzten emakumeak, gizonak eta umeak topatzeko".

Ibilbidearen hasieran (ezkerretik eskuinera), neskatala bat dago, saskia daramala eta jaietako arropa jantzita; ondoren, ume bi iturrietan jolasten; eta gero, emakumezko esne-saltzailea eta emakume baserritar bat. Izkina hartu, eta aguazilarekin egiten dugu topo, bizikleta gainean dabilen eskolako irakaslearekin eta apaizgai birekin. Txarriboda bat ere irudikatu da horma batean, eta omenal-

dia egin zaio Jose Antonio Begoña "Kiki" kirolariari. Arin-arin dantza taldeko emakumezko dantzari baten irudiak bukatzen du ibilaldia. Irudiak tonu grisez eta argi-lunex margotu dituzte, "gogoratzeko eta iraganera itzultzeko efektua lortzeko", eta atzealde abstraktuen gainean ipini dituzte, "kaleari freskotasuna emateko".

Marrazkiak margo akrilikoa erabilia egin dituzte, baina hasi baino lehen hormak eta pertsianak atondu egin behar izan zituzten, egoera txarrean zeuden eta. "Erronka handia izan da pertsianetan-eta margotzea. Gainazal kurbatuak dira eta, hortaz, modua topatu behar izan dugu, begirada gainazal irregularretik aldentzeko eta arreta irudietan kokatzeko".



Einer Larrabeiti Zaratek norbere buruarekin eta gainerakoekin dugun jokabideari buruz hausnartzen du. Egunerokotasunean aurki ditzakegun egoera eta sententzioak ardatz hartuta, hainbat gairen inguruan mintzatuko da sail honetan.



Biktimismoan jarraitu gura badozu, hau ez da zuretzat

t: Einer Larrabeiti / a: www.le-vpn.com

Gogoan dozu nork irakatsi eutsun "diruak usteldu egiten gaituela"? Noz hasi zinan zure hurrekoenak dinoana egiazat hartzen? Ba al dakizu zure argudioak zugandik jaio diran ala imitatu egiten dozuzan?

Berebek gauzak izendatzeko balio dabe. Ezta? Sarritan, ez doguz zuzen erabiltzen, nahastu egiten ditugu guk emondako balorazino subjektiboak, eta hortik sortzen dau bakotzak mundua ikusteko modu distorsionatua. Ze erraza dan al-

kar ulertzea eta zenbat atzeratzen dogun prozesua "errazoa euki" gurean. Hori irakurtzerakoan, seguruenik norbait etorri jatzu burura dagoaneko. Baina batez be, bilatu eizu zugar. Auto-behaketa barik, itsu dago gizartea.

Gaurkoan mahai gainean daukagun gaia dirua berbeagaz euki ahal dogun nahaste-borrastea da. Batzuk dirua daukie euren bizitzako helburu nagusi eta bakarizat. Beste batzuk aurreiritziz eta epaiz beteta begiratzen dabe euren kontu korrontean daukiena be. Kasu bietan, diruagaz harreman toxikoa daukie. Lehenengoan,

euren balioa diruaren arabera dala sinetsi dabelako, "behar zaitut". Bigarren, klanari dinoen fideltasunagaitik, "txarto ikusita zagoz, ezin zaitut maite". Halan, emozino eta ekintza negatiboak sortzen doguz, besteak beste menpekotasuna, erruduntasuna, xahutzea.

Baina, zer da dirua benetan? Hainbeste min eragin leike berez? Modu sinplean azaltzeko, dirua, ekintza edo gauza ugari lortzeko, trukean emon behar dan zerbaite da. Trukea derrigorra izango zala erabagitean sortu zan; beraz, ez da naturala, asmatua baizik. Orduan, dirua gauzen erabilpena erregulatzen tresnea baino ez dala ikusteko gai bagara, arazoa non dago? Gizakiak egiten daben horretan. Ez zaitez "ona" edo "txarra" dan epaizten hasi. Jarraitu ulertzen. Gaur egun sare-sozialakaz gertatzen dan bezalaxe, erabiltzen dan moduan dago kakoa. Beste adibide bat: nor ari da kontzientzia eta zaintza gehiago erabiltzen: jabetza pribatua natura zaindu, mantendu eta gartzen laguntzen daben pertsona ala baso publikoa zikintzen eta hondatzen dabilen pertsona? Gure ideia, asmo eta ekintzetan dago bai arazoa, bai konponbidea.

Beraz, lagungarria da mintzen gaituen edozein berbari berezkoa ez dauen gainkarga kentzea: "dirua", "familia", "bikotea", "laguntasuna", "edertasuna", "adina", "jarri hemen zeure adibidea". Hasieran, deseroso sentitu zaitezke. Errua nori bota edo zer kritikatu ez badaukazu, ze zentzu dauka zure bizitzak? Badauka, bai. Zure buruaren gidari eta zuzendari izateko espazioa eta energia berreskuratu dozuz. Gure gorputzak zelula osasuntsu, lasai eta konstruktiboak behar dituan moduan, planeta honek be horrelako izakiak behar ditu, heldugabeak eta kexatiak alferrekoak dira eta. Ondo etorri Ahalduntzearen Arora.

**PELUKERIA
ESTETIKA
LARRABETZU**

Anguleri n° 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

tik tak

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria **9€**

T: 94 454 55 55
Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

ZORABETZU BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

**clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika**

Txoriaren etorbidea, 9 - Loria | Arteaga erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 687 79 54 45
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

Geu nolako, Gabonak halako

t: Juan Luis Goikoetxea

Aikoreko irakurle hori:
aro berrian gara,
antza,
medikuntzaren
esperantza,
etorkinen kopurua
gorantz,
kartzelan dugu
arantza.

Egunen batean mundua leunagoa
eginen da gure inguruan
eta nahinorantz abiatuko gara
nahieran,
eta maite ditugun lagunak
besarkatuko ditugu, (...)
SARRIONAINDIA

Bai-baitator urrundik
Gabonetarako
seme zaarra: bidean
elurpe du oro;
etxeko sutondoan
bixkortu ezker,
ikus aren ezpainen
parreantxa gozo!
LIZARDI

Antropozentrikoak ginen,
ekoentrikoak gara,
ala egoentrikoak?

Erdi Aroan lurra gune
eguzkia ingurune;
Orain, gizakia erdigune?
Egoentrikotik ekoentrikora
ama-lurraren altzora.

Gabonetan seiko burbuilak,
seinaka ala banaka, ala onlineka?

Txoriñoak kaiolan
itunik du kantatzen;
duelarik zer jan, zer edan,
kanpoa du desiratzen.

Zeren? Zeren?
libertatia zeñen eder den!
EZEZAGUNA
Eguberri intimoak,
kutunak,
lagunen lagunak,
euskaradunak?

Gabon eguna da, egun laburra
erlojuetan bakarrik.
Ez dot eukiten iluntzerako belaun bie-
tan indarrik.

Zatituten dot ogi biguna eta lehenen-
go kuskurra
sendotuteko da amurruturik dagoan
txakur adurra.

EUSEBIO MARIA AZKUE

Ez dugula Eguberririk izango?
Nola ez bada? Bai noski!
Isilagoa eta sakonagoa!
Lehenengoaren antzekoagoa,
zeinetan bakardadean jaio baitzen Je-
sus. (...)
Errege-segizio itzelik gabe,
baina sentitzen garela artzain eta nes-
ka-mutil

Egiaren bila. (...)

Oharra:

Javier Leoz, nafarra, apaiza. Frantzisko
aita santuak telefonoz dei egin dio auto-
reari, testuagatik zorionak emanez

Kanta dagigun
dringilin-dron,
gaur Gabon!
Etsaia etxera
dator aspaldion,
izena Amazon.
Ateko txirrinari
ez jaramon,
horixe da Mammon (*).
On line dei Olentzero,
din-dan-don,
atoan da berton.

(*) Diruzalekeriaren sinboloa



LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behea B 48150 SONDIKA 634 410 470
auzokidefincas@gmail.com



Sabino Arana, 3. lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com



Mikel Zurutu, 3 - 5. lonja • Sondika, 48150 • 94 645 89 19



Sabino Arana, 1-3. SONDIKA



SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Etxeko sukaldaritza

Makailaoa gulakaz



t: Maite Lekerika / a: unareceta.com

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 200 gramoko lau makailao-zati (beratuak)
- 4 berakatz-atal
- 2 porru (zati zuria)
- 200 g gula
- Pipermin-zati bat
- Oliba-orioa
- Gatza

Prestetako errea:

Porruak juliana eran zatituko doguz eta orio apur bategaz, su ezitan

erregosiko doguz. Orio ugaritan, berakatz-atal bi prijiduko doguz; ondoren, sua moteldu, eta makailao-zatiak sartuko doguz. Hamar minutu inguru izango doguz egiten. Makailao-zatiak atera, eta, irazki batek lagunduta, eragingo dogu pil-pil saltsea egiteko. Makailao-zatiak saltsan sartuko doguz. Beste alde batetik, beste berakatz-atal biak eta pipermina txikitu eta prijiduko doguz. Gulak botako doguz, eta egin.

Porruak lau plateretan banatuko doguz. Plater bakotxean bakailao-zati bat ipiniko dogu, saltsea eta, azkenik, gulak.

Txokolatezko
tartaletak
masustakaz

a: tartashappy.blogspot.com

Osagaiak:

- 6 tartaleta
- 150 g esne-gain
- 300 g nocilla
- Masustak

Prestetako errea:

Katilu baten esne-gaina ipiniko dogu eta irakiten hasten danean nocilla gehituko dogu. Ondo eragingo dogu osagai biak ondo nahasteko. Nahasia hozten danean tartaletak beteko doguz. Hozkailura sartu, eta han 30 minutuan izango doguz. Hozkailutik atera, eta masustak erabilita apainduko doguz.

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

RADIO TAXI
FEMADEZure taxi,
Teoriarikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A

ERREKA
ONDO
JAT
ETXEA

Eguneko menua, asfeburuko menu berezia, karta,
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familiaren bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behe
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.turbulus.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Ane (Erein), Alaine Agirre.
- Bederatzi ateak (Txalaparta), Josu Waliño Pizarro.
- Olivetti (Erein), Aitziber Etxeberria Garro.
- Atzean uzten dudana (Desclée de Brouwer), Alison McGhee.
- Herri hura (Elkar), Maialen Diaz Urriaza.

LITERATURA: GAZTEAK

- Bastet, Ibaiertzeko biztanleak (Denonartean), Peio Lopez-Iturri. II: Irati Merino Petralanda.
- Euskal herrietako laminek ipuinak (Denonartean), Juan Kruz Igerabide. II: Elena Odriozola Berastegui.
- Bisita (Txalaparta), Antje Damm.
- Itzultzailea: Naroa Zubillaga Gomez.
- Lorerik Gorriena (Pamiela), Itziar Otegi Aranburu. II: Sandra Garayoa Cotera. Album ilustratuen XIV. Etxepare saria 2020

Sudokua

		3	2	9				5
						2		
3			1	2		4	9	
	4		8				5	6
	6			5				
		9	4					
		4			8	1		
		1	5	3				8

8	7	6	7	3	5	1	2	9
2	7	1	8	9	6	7	3	5
3	9	5	2	1	7	6	8	7
1	2	8	7	5	3	7	9	6
9	5	3	6	7	8	2	7	1
7	6	7	9	2	1	8	5	3
6	3	2	5	7	7	9	1	8
5	8	9	1	6	2	3	7	7
7	1	7	3	8	9	5	6	2

Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK – ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. esk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

Iz

Ile-apaindegia
estetika

Txantxangorri, 2
ZAMUDIO
946 036 943

Erakusketak

Larrabetzu

- > XVII. Gabonetako postalen erakusketa, udal-webgunean. Abenduaren 14tik aurrera.
- > "Konfinamenduko altxorrak". Abenduaren 21etik 30era, 17:30etik 19:30era, Anguleri kultur etxean.

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: *Haize-lekuak*, Amaia Telleriaren eskutik. Abenduaren 10ean, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ikastaroak

Zamudio

- > Talo-tailerra. Abenduaren 4an, 20:00etan, Gaztestazioan. Euskararen Egunaren haritik.
- > Material birziklatua. Abenduaren 23an, 18:00etan, Gaztestazioan.

Larrabetzu

- > Patchwork ikastaroa uztea edo bertan izena ematea, eta familientzako irakurtze-saioetan izena ematea. Abenduaren 14tik 18ra, Anguleri kultur etxean.

Ikuskizunak

Lezama

- > Umeentzako ipuin-kontalaria. Abenduaren 12an, 12:00etan, Uribarri Topalekuan. Udalak eta jai-batzordeak antolatua.
- > "Irakurketa kluba" ipuin-kontaketa (3 urtetik 9 urtera bitartekoentzat). Abenduaren 17an, Kultur Aretoan.
- > Bertso-saioa. Abenduaren 19an, 17:00etan, frontoian. Udalak eta jai-batzordeak antolatua.
- > "Ipuinak dantzan" ipuin-kontaketa (3 urtetik 9 urtera bitartekoentzat). Abenduaren 22an, Kultur Aretoan.

Larrabetzu

- > "Auskalo zeinek jarriak" bertso-ikuskizuna. Abenduaren 18an, 19:00etan, Hori Bai gaztetxean.
- > *Olentzero munduan arraun the world* dokumentala eta zuzendariarekin so-lasaldia. Abenduaren 19an, 18:00etan, Hori Bai gaztetxean.
- > Bizkargi dantza-taldea eta Gaztelumendi abesbatza. Abenduaren 20an, 18:30ean, frontoian.

Kirolak

Derio

- > Emakume Master Cup-eko finalerdiak. Abenduaren 6an, 12:00etan, frontoian. Partidak ateak itxita izango dira eta ETBk emango ditu.

Musika

Derio

- > Gari, Euskararen Egunaren harira. Abenduaren 3an, 19:00etan, Gurea Aretoan. Sarrerak: 3 euro (www.deriokoudala.net eta kontzertua hasi baino ordubete lehenago leihatilan).

Zamudio

- > Gabon-kantak: Ekidazu abesbatza eta Zamudioko Kamara Korala. Abenduaren 11n, 19:00etan, elizan.

Lezama

- > J Martina eta Douleur Dolor. Abenduaren 4an, 19:00etan, frontoian. Udalak eta jai-batzordeak antolatua.
- > Gontzal Mendibil eta Ekidazu abesbatza. Abenduaren 12an, 20:00etan, frontoian.
- > Gabon-kantak: Txuma Olagüe abesbatza eta Ekidazu abesbatza. Abenduaren 13an, 12:00etan, elizan.

Larrabetzu

- > Gaztelumendi eta Txuma Olagüe abesbatzak. Abenduaren 19an, 20:00etan, Andra Mari elizan.

Txapelketak

Zamudio

- > Mahai-futbola. Abenduaren 12an, 19:30ean, Gaztestazioan.
- > Ping-pong. Abenduaren 19an, 19:30ean, Gaztestazioan.

Larrabetzu

- > XVII. Gabonetako postal-lehiaketaren irabazleak jakinaraztea, udal-webgunean. Abenduaren 18an.

Bestelakoak

Larrabetzu

- > Olentzeroren bila. Abenduaren 23an.



Komikia

Ana Galar



GABONETAKO LOTERIA

14072

LARRABETZU

- EROSKI:
Iturrikoetxe Etxetaldea, 2-3
- ESTANKOA:
Andra Mari Kalea, 1
- ETORKI TABERNA:
Andra Mari Kalea, 1
- GURE ETXEA TABERNA:
Goienkale, 20
- MARIA LUISA TABERNA:
Arrebale, 5
- GAZTELEKU TABERNA:
Andra Mari, 6
- ARETXABALA TABERNA:
Andra Mari, 8
- POLITENA TABERNA:
Andra Mari, 14
- FOTERI TABERNA:
Andra Mari, 22

LEZAMA

- OGIKETA:
Aretxalde, 64
- OXANGOITI TABERNA:
Aretxalde, 54
- LEZAMAKO BASERRITARREN
ALKARTEA:
Aretxalde, 21
- JOSUNE DENDA:
Garaioltza, 74
- ENAITZ TABERNA:
Garaioltza, 74C

SONDIKA

- LIBURUDENDA
Mikel Zarate, 2
- GELTOKI
Errementeri, 8
- EGARRI TABERNA
Txorierri et., 30

ZAMUDIO

- BIDE BI TABERNA
Leizaola Lehendakaria Enparantza, 3
- BIDEGORRI TABERNA
Txinbo, 9
- RUBEN BITXITEGIA
Leizaola Lehendakaria Enparantza, 5
- ZAMUDIO ETA DERIOKO
LURLANGILEEN ETXEA
Santimami, 1

DERIO

- BASERRI ANTZOKI
Talleri, 6
- AEK
Gorbea, 5
- LILIAK LORADENDA
Erdiko kalea, 2
- TIK TAK
Bestorrene, 5
- TXAPAS
Bestorrene, 8
- ADARVE
Sollube, 2
- UDAL EUSKALTEGIA
Herriko plaza, 3

LOIU

- AURREGOITI
Lauroeta et., 27



OSTALARIAK, *eutsi goiari!*



BIDEGORRI Zamudio **AMAIRU** Zamudio
PATXI KOOP Zamudio **ARETXARTE** Zamudio
ERREKAONDO Zamudio **GAMINIZ** Zamudio
ENAITZ Lezama **GAZTEDI** Lezama
LEJARRENE Lezama **AURREGOITI** Loiu
ANKAPALU Larrabetzu **BIZKARGI** Derio
IAZI Derio **ADARVE** Derio